

pertsonaiak
mikel laboa
makala dj-a

euskara
legutiano aldeko euskara
euskara batua

euskal literatura
arabako udazkeneko fruituak
gizartea
bilgune feminista

GEU

2 €

2006ko urtarrila

157

mikel laboa



Hiru helburu:

Bakea eraiki eta demokrazian sakondu

Autodeterminazioa gauzatu

Euskal ezker soberanista berritu

Eskaintza bat:

Elkarlana



“hator
hator
mutil
etxera...”

 gasteizko
aralar

Dalvez
argitarazleak

diseinu grafikoa
maketazioa

liburuak aldizkariak afixak katalogoak

www.dalvez.com

diaz de olano kalea, 22 -behea
telefonoa: 652 77 65 09
faxes: 945 24 52 69
info@dalvez.com



geu aldizkaria eskuratzeko salmenta puntuak

gasteiz-auzoka

- >arana-judimendi: 3 kiosko (albeniz; haurtxoa...)
- >gorbea-zaramaga: 7 (ginea, araleku, olmo gasteiz...)
- >gasteiz hiribidea-ariznabarra: 4 (salazar; de anta...)
- >lakuabizkarra-gorbeia zentro komertziala: 7 (la vitoriana>donostia / gabriel celaya / hondarribia; lakua prentsa (blas de otero); paper gauza>gorbeia...)
- >san martin-lakua: 6 (aranbide, beatoko alzoa...)
- >frantzia kalea-adurtza-desamparadas: 8 (saralde; angulema; tategón; prensa&revistas yolanda [errioxa kalea]; santiago ospitalea...)
- >boulevard: abac, casa del puro
- >erdialdea: 11 (elkar, mendi, el globo, el revistero, jesusen zerbitzarien kaleko kioskoa, alde zaharra, dato kalea, bestpress...)

araba

- >bernedo: arrieta taberna
- >maeztu: bazter okindegia; suso alzoa
- >kanpezu: gomez
- >agurain: arantza&lola; garcia vicuña
- >dulantzi: aberasturi-dulantzi; medina
- >araia: herriko plazakoa
- >langraiz: peñador
- >espejo: ora
- >legutio: barrera; okindegia
- >izarra: plazako kioskoa
- >murgia: belver
- >trebiñu > argantzón: ansotegi; triraser
- >arabatik falta diren aldeetara hilabete hauetan zehar zabalduko da (aramaio, audio, amurrio, artziniega, oion, eskuernaga)

nafrroa: iruñea, tutera, lizarra, berriozar, zizur, doneztebe, lesaka, bera, etxarri, arbizu, altsasu, leitza

gipuzkoa: donostia (euskal kulturgintzan, bretxan, autobus geltokian...), garbera, zarautz, usurbil (urbil...), oiartzun (carrefour), irun, hondarribia, tolosa, carrefour (goierri), orereta (arrasate eta aretxabaleta hile hauetan zehar)

bizkaia: bilbo (bidarte, bilboko autobus-geltokia, zubiarte-n, txurdinaga anbulategian, atxurin...), otxandio, loiu (aireportua), sondika, plentzia, asua (carrefour), mungia, barakaldo (cruces ospitala), leioa (ikea; unibertsitatea), las arenas-getxo, algorta-getxo (kirol portuan), erandio, leioa, algorta, gernika, bermeo, mundaka, zornotza, orduña, galdakao (ospitala)

zeregin	4
urtarrileko agenda	
iritzia	7
ruben sanchez	
geupertsonaia	8
mikel laboa	
kaletik / idazleenzutabea	12
tabakoaren aurkako legea / txabi arnal	
euskaltasunean. gasteiz	13
iñigo durana	
geugaia	15
legutiano aldeko euskara & euskara batua	
artetxokoa	20
makala dj-a: 'hondartzan'	
proposamenak	
haur & gazte literatura	22
cd-ak / txabi arnal	
lauhitzetan	23
www.semealabok.net / beste	
batbitan	24
bilgune feminista	
bidaia / errezeta	26
jon arretxe / ahate gibel apartua...	
arababixotzian / historiazutabea	27
cristina fernandez / erlantz urtasun	
batbitan	28
2005/arabako euskal literatura: lagin bat • xabier olaso	
geu elkarte	30
kultur eskaintza	
historia(εeuskara)	31
burdingintza (II)	
umorea	32
iñigo sarasola	
orribatean	33
ramon bajo ikastetxea eta euskara	
iritzia	34
cristina puelles	



Laguntzaileak:




2
OSKORRI & KUKUBILTZO

> 'doktor do re mi eta benedizebra'
gasteizko haur ikuskizunen II. erakustaldia
mendizorrotzeko kiroldegian, 19:00etan. 2 euro
gasteizko udaleko kultur saila. www.vitoria-gasteiz.org

TXOTXONGILOAK

> irrintzi taldea: 'ilargiaren txangoa'
arara gizarte etxeko ekitaldi aretoan, 18:00etan. 2 euro
gasteizko udaleko kultur saila. www.vitoria-gasteiz.org

4
TXAN MAGOA

> gasteizko haur ikuskizunen II. erakustaldia
mendizorrotzeko kiroldegian, 19:00etan. 2 euro
gasteizko udaleko kultur saila. www.vitoria-gasteiz.org

5
ERREGE KABALGATA GASTEIZEN

> 11:00etan: tren geltokian / 12:00-18:00: umeak eurekin biltzeko tarteak (eskoriatza-eskibel jauregian) / 19:00etan: kabalgata > hasiera: bilbo plazan; erdialdea zeharkatu; I. heintz kalea; antso jakituna; amaiera: konstituzio pz.
www.vitoria-gasteiz.org

7
KONTZERTUA: SEÑOR NO

> 'señor si' diskoaren aurkezpena
gasteizko gora tabernan, 21:00etan
www.hotsak.com

13
KONTZERTUA: AREAN TALDEA

> 2. diskoaren aurkezpena:
'higakorra'
gasteizko gora tabernan, 21:00etan
www.hotsak.com

22
MENDI IRTEERA: GEUREKIN MENDIRA / 06

> usakoa (913 m)
goizeko ibilaldia
lovaina plazan, 9:00etan
arduraduna > txipi: 945132758
geu elkartearen mendia taldea


3
TXOTXONGILOAK

> behi bi's: 'ni, arratoi'
aldabe gizarte etxeko antzokian, 18:00etan. 2 euro
gasteizko udaleko kultur saila. www.vitoria-gasteiz.org

KONTZERTUA: GOSE TALDEA

> trikia & elektronika (elektro-jazza)
gasteizko parral tabernan, 20:30ean

6
MUSIKA: DJ GOTXI & NATXO

> jazzteiz - halabedi irrati
gasteizko gora tabernan, 00:00etatik aurrera
www.halabedi.org

17
KULTUR IKASTAROA: 'ESPELEOLOGIA ETA ARABAKO LEIZE-ZULOAK'

> urtarriaren 17tik martxoaren 21era
hegoalde gizarte etxean, asteartean, 20:00etatik 21:30era
matricula: 26,70 / 13,50 euro
irakaslea: jorge gorosarri (arabako espeleologia taldea)
izena ematea eta argibide zehatzak: hegoalde gizarte etxean
gasteizko udaleko kultur saila. www.vitoria-gasteiz.org

26
GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA / 06

> liburua: c. k. chesterton, ostegun izan zen gizona, ibaizabal 1997 [1908]
dinamizatzailea: iban zaldia
hikaatenean (pintore kalea, 13), 20:00etan
>> otsailean mintzagai izango den liburua:
eider rodriguez, eta handik gutxira gaur, susa 2004
geu elkartearen ekimenez


31
KULTUR ERROTA

> ekitaldi kulturala (zehazteke)
gasteizko parral tabernan, 20:30ean
geu elkartearen ekimenez


beste
BERTO TXAPELKETA: JON AIZPURI SARIA

> jesus obrerok antolatuta, 'eskola arteko VII. bertso txapelketa'
lanak idatziz aurkeztu behar / epea: 2006-02-3
jesus obrero ikastetxea, frantzia kalea, 32. gasteiz
finalisten ekitaldia: otsailak 11, 'fundazio aretoa' dendarabako kultur aretoan, 19:30ean
www.j-obrero.es


beste
EUSKAL KANTA TXAPELKETA: JON AIZPURI SARIA

> jesus obrerok antolatuta, 'eskola arteko VII. euskal kanta txapelketa'
kanta orijinalak edo interpretazioak izan daitezke / aurkezteko epea: 2006-02-3
jesus obrero institutua, frantzia kalea, 32. gasteiz
finalisten ekitaldia: otsailak 11, 'fundazio aretoa' dendarabako kultur aretoan, 19:30ean
www.j-obrero.es



kontzertua > gose taldea

'gose' talde arrasatearrak trikia eta elektronika batzen ditu. testu lizunak eta erritmo lasaiak, dotoreak eta malguak eta elektro-jazzaren tankerako abestiak (saint germain...) eskaini eta euskal trikiaren kultura irauli egiten du. Kolaborazioak: evaristo (gatillazo eta la polla records), francis (doctor deseo)... laguntzaileetako batzuk dira.

PARRAL TABERNAN (SAN FRANTZISKO XABIER KANTOIA, 4 - GASTEIZ) / URTARRILAK 3. 20.30EAN

mihiluze lehiaketa kike amonarrizekin

laster, mihiluze lehiaketa etb1-en kike amonarrizekin! horretarako, lehiakideak behar dituzte, 18 urtetik gorakoak: umoretsuak, berriak eta drogoak. primeran pasatzeaz gain, sari bikaina lortzeko aukera aparta izango da. anima zaitez, hirukote bat osatu eta jar zaitez eurekin harremanetan lehenbailehen: 943011784 / mihiluze@eitb.com

erakusketa > uraren hazpegia. javier navas

erakusketa honen muina pertsonen urarekin duten lotura da: ura biltzean, hori garraiatzean, arrantzan, euria egitean... eta ur eskasia: herrialde behartsu eta xumeenetako batzuen irudi hautatuak daude ikusgai; izan ere, kultura eta historia aberastasun desiragarria duten herriak dira. gure munduaren museo dira, eta gure antzinako ohituren leiho. kultura anitzeko bidaia honen xedea da irudien bidez adieraztea leku guzti horietan urari dioten errespetua, uraren erabilera bikaina eta, ondasun urria den heinean, urari dioten estimua.

gasteizko kultur etxea ignacio aldekoa / urtarrilaren 17ra arte

WWW.CULTURALALAVA.COM

erakusketa > gure artea. ibon aranberri, iñaki garmendia, azucena vieites

ibon aranberri, iñaki garmendia eta azucena vieites izan dira azkeneko 'gure artea lehiaketa'n sarituak (XVII. edizioan). egungo euskal testuinguruan planteamentu kritiko-diskurtsibo eta auto-erreflexiboetan oinarritutako artea gauzatzeko modu baten ordezkariak dira. erakusketa honetan hiruen lan berriak jasotzen dira, erakusketaren formatuarekiko halako erdi-autonomia egoera bat nabarmenduz.

artium arte garaikideko euskal zentro-museoan / urtarrilaren 8ra arte

WWW.CULTURALALAVA.COM

kontzertua > arean taldea

'higakorra' disko berriaren aurkezpena

borja estankonak (gitarra eta ahotsa), koldo de miguelek (bateria) eta iñaki garridok (baxua) osatzen dute arean rock taldea. musikak elkartu zituen orain dela zortzi urte, eta ordutik hona hainbat egitasmotan ibili dira elkarrekin. iniezione izena zutela hasi ziren, orain dela urte batzuk, arratia eta hego uribe bizkaiko eskualdeetako hiru musikariak. garai hartan ezarri zituzten gaurko arean taldearen oinarriak. iniezione zirenean, musika instrumentala soilik egiten zuten. orain, berriz, kantu guztiek dute hitza. testuez borja arduratzen da eta musika denon artean osatzen dute. aurreko diskoa gasteizko sonora estudioan grabatu bazuten, oraingoan tolosara joan dira eta bertako bonberenean grabatu dituzte kantu berriak karlos osinaga, lisabö taldeko partaide eta teknikariarekin. GASTEIZKO GORA TABERNAN (SAN FRANTZISKO XABIER KANTOIA, 1 - GASTEIZ) URTARRILAK 13 21:00ETAN

ortzai antzerki eskola gasteizen

florida zinemen ekimenez eta gasteiz on-en laguntzaz, ortzai antzerki laborategia ezartzen da. Iker ortiz de zarate antzerki zuzendari eta aktoreak zuzendua, ortzai-k antzerkia irakasteko eskola formatu berria eskaintzen du.

INFORMAZIOA: ORTZAI@HOTMAIL.COM

2006KO EKAINAREN 30A BITARTERA

kartel lehiaketa

andre maria zuriaren jaietako kartela.

WWW.VITORIA-GASTEIZ.ORG

GASTEIZKO UDALEKO KULTUR

SAILA (GOIURI JAUREGIA)

epea: 06/05/13

GEU

laguntzailea:

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

Gizarte-Ekintza

[ruben sanchez bakaikoa]

INTERNAZIONALISMOA

Bai, bai zuetako batzuk irrifartxoahoa egongo zarete izenburua irakurrita. Uste dut, gainera, internazionalismoa askotan ez dela oso ondo ulertzen: zer den, zertarako den, nola/non egin behar den... Bada gainera elkartasun internazionalistarekin nahasten den beste elkartasun mota asko, baina nik, jakina, 'herrien arteko samurtasuna'-z idatzi nahi dut, elkartasun politikoaz, borroka internazionalistaz, gure eta munduko gainontzeko herrien askapenaz...

3 oinarri jarriko ditut, elkartasun internazionalistaren abiapuntu:

***Lehenik**, sentimendua. Ernesto 'che' Guebarak bota zuen: 'barren-barrenean sentitu munduko edozein bazterretan edozeinen aurka egindako edozein injustizia'. Ondorioz bi osagai nagusi dauzkagu: elkartasuna auzoarekin (barren-barrenean sentitua, beraz, samurtasuna), eta injustizia. Injustizia osatzeko modurik onena justizia berregitea da. Horregatik, gure borroka internazionalista ez da mugatzen injustiziak eragindako kalteak sasi-konpontzera, baizik eta injustiziaren erroetara jo eta erroetatik ebaki.

***Bigarrenik**, beharra. Munduko herri batek, berak bakarrik, ba al du bere burua askatzerik? Nekez. Gure askapen borroketan elkarren beharra dugu, errezago eta samurrago askatuko da Venezuela Kubaren laguntzaz (osasungintzan eta hezkuntzan) eta Kuba Venezuelarekin (petrolioa), errezago egingo diote aurre palestinarrek Israel estatutik zapaltzaileari nazio arteko boikot indartsu batekin, baita kurduak Turkiari, edo Kubak USARI, Kolonbiak Coca Colari... Eta mundutik Euskal Herrira berdin-berdin: noraino dute eragina beste herri batzuen elkartasun borrokek gure iheslarien egoeran,

Josu Lariz-en kasuan adibidez? EHrekin elkartasun komite aktiboek elkarteratzeak, manifestak, hitzaldiak antolatzen dituztenean, gure zapaltzaileen bisitei erantzuten dienean, askeago izaten laguntzen digute.

***Hirugarrenik**, ardura gurekiko eta besteekiko. Geuk beste herriei egin ahal diegun ekarpenik eta elkartasunik onena geure burua askatzea da. Batetik, askatasuna eta sozialismoa behar ditugulako gure herrirako. EHko pertsona guztiok izango bagara gure eskubideen jabe (naziotasuna, hizkuntza, genero, etxebizitza, osasuna...), eredu antidemokratiko hau gainditzeko dugarako izango da. Kontua ez da beste eredu bat posible den, kontua da beste eredu bat ezinbestekoa dela. Eta ez bakarrik guri begira, baita (eta batez) ere besteek begira. Gaur egungo EHk uzten duen oinatz ekologikoa jasanezina da beste herrientzat, beste herriak zapaltzen ari gara. Aurrerapenaren ikur den erkidego baskongadoan kontsumitzen (xahutzen) dugunarekin 2,7 mundu beharko ziren, gainontzeko munduko herrietan gure 'mailan' bizi nahiko balute. Alperrikaltzen dugu jana, ura, energia, botikak, plastikoa, erregaiak, lurra, elektronika osagaiak... Egunero, tonak eta tonak. Tonak eta tonak. Egunero. Arduragabe. Nondik eta nola etxeratzen dizkiguten galdetu gabe, gure 'euskal' makro enpresak non eta nola ari diren jakin nahi gabe, negozio horiek esplotatzen dituztenekin ahaztuta, eta gure 'ongizatea' gero eta gehiago babes-tuz, badaezpada ere. Eta ez daitezela hona etorri saldoka mesedez.

Horregatik, samurtasunik sentitzen badugu munduko herrion artean, behar dugu geure burua askatu eta justuak izan gure artean eta beste herriekin. Eta borrokan ari denari, askatasuna, justizia, sozialismoaren bila, betiere lagundu.



borrokan ari denari, askatasuna, justizia, sozialismoaren bila, betiere lagundu.

Zure denda erotikoa

SEX



PITTILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIA RTZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



MIKO

Izozkiak



bar • restaurante
albéniz

Errege ateak, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztozile kalea (KUTXI), 23



Uetzal

Hegoamerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean) Tfnoa: 945 25 03 52

BAR KLAKÉ



KUTXA, 2
TFNO. 143883

GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa: 945 28 28 39
01002 Gasteiz



eguneko menua

DIBUtec

Paper Berezioak
Arte Ederretarako Materialak
Ink-jet original eta birziklatuak
Bulego Materialak
Enluzenduzioak
Plastifikazioak
Kopioak
Kamiseten Estampaketak

azkarprint

Inprimatua / inprimatzea
Edozein inprimaketara

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 • 945 23 30 01 • GASTEIZ • INPRIMATEGIA •



EGUR

Zurezko Teilatuen Muntaiak Garabiarrekin eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.
Goian Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faxa: 945 465 921
montajesegur@euskalnet.net



E4

eusko alkartasuna

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



GA

Gazte Abertzaleak

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tfno: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfno: 26 19 91
01004



Sartu

Zure arropa eta oinetakoa

www.sartudenda.com

Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710



BARRAL TABERNA

Errege Ateak, zuzeneko eta ostialdea

JANTOKI BEGETARIANO

SAN FRANCISCO XABIERREKAREN KANTOA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

TXUKUNA

EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...

Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE

Euskaltea

Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa: 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

geupertsonaia

mikel laboa

TXORI ASKEA

“Xoriak, bakarrik kantatzen du; bere beharrak betetzeko, bere lekua mugatzeko. Mikel, bere burua osatzeko ezinbestekoa zuen herriari eta honen erantzunari hasi zen kantari”.

J. A. Artze, 1974

Aspaldi espero zen Mikel Laboaren lan berria. Zorionez, azkenean, kalean da: Xoriek 17. Inspirazio iturri izan dituen egileei goramen egin, eta txorien munduan barneratu da Mikel Laboa disko honetan, metaforikoki bada ere. GEUk euskal kantariaren lan berrian murgildu nahi izan du, eta bidenabar, haren bizitza eta ibilbideari gainbegiratu xumea egin. Izan ere, Mikel Laboaren lana, tradizioa, poesia eta esperimentalismoaren arteko nahasketa bakarra da Euskal Herrian.



[edurne begiristain]

XORIEK 17

Laboak urte osoa eman du grabatzen Xoriek 17 diskoa bere ohiko kolaboratzaile Iñaki Salvador pianistarekin, Josetxo Silguero saxofoi jotzailearekin eta Jena Phocas grabaketa ingeniariarekin. Bestelako musikari ugari ere inguratu da Laboa lan berri honetan (horien artean, Josu Izagirre eta Hasier Oleaga gasteiztarrek), eta kantu askotan kolaborazioak izan ditu (Ruper Ordorika, Xabier Montoia, Lisabö...).

1996an jarri zen Laboa disko berri honi begira. Kanta berriak egin hasi zen orduan disko berri bat osatzeko ideiarekin. Kanta haietako batzuk (besteak beste, Gure hitzak eta Kiromantzidaxa-Lekeitio 10) beste lan batzuekin batera argitaratu ziren Gernika-Zuzenean 2 izenburuko CDan, 2000 urtean.

Urtebete geroago, 2001ean, Bernardo Atxaga idazleak txoriei buruz disko berria egiteko ideia eman zion. Ideia interesgarria iruditu zitzaion Laboari. Atxagak txoriei buruzko materiala pasatu zion, eta hortik sortu zen diskoaren ideia, baita kanta askoren inspirazio iturria ere (Xoxo beltza, Agonia eta Xoriak). Txorien mundu metaforikoan sakondu du Donostiako kantariak disko honetan: "Gure artean daude txoriak, gure etxeetara sartzen dira, sukaldera. Bestalde, mundu zaila da txoriena. Zergatik? Ez dakit, ez diet galdetu". Halaxe mintzatu zen Laboa pasa den abenduan, diskoaren aurkezpen egunean.

Hamaika urte igaro dira Mikel Laboak estudioan grabatutako azken diskoa kaleratu zuenetik ('14'). Ordutik zuzenean grabatutako bi disko kaleratu ditu (Mikel Laboa zuzenean, eta Gernika-zuzenean 2). Orain dela bi urte, 60ko hamarkadako zenbait abestiz osatutako diskoa ('60ak+2') atera zuen. Hamaika urte luzeren ostean, baina, estudioan grabatutako lan berria kaleratzeko tenorea bazela pentsatu ei zuen Laboak berak. Kostata, baina azkenean argitaratu du hamalau abesti berri osatutako lana. Grabaketa bi txandatan egitea proiektatu zen (2004ko udazkenean eta 2005ko udaberrian), baina, osasun arazoak bitarte, grabaketa lana eten egin behar izan da hainbatetan, eta berriro hasi, urtebetera luzatuz.

Egitura konplexua dauka Laboaren lanak. Hiru atal nagusik osatzen dute diskoa: 'In memorian' zatia, 'Xoriek' atala eta lau kantuz osatutako izenik gabeko beste parte bat. In memorian-en, bere lanaren inspirazio iturri izan diren artistak omendu ditu. Xoriek atala, txoriak oinarri hartuta egindako kanta dira, hegaztiak betidanik agertu baitita Laboaren obran. Izenik gabeko hirugarren atala gainerako lau kante osatzen dute, eta maite dituen hiru idazleren testuak ditu oinarri (Joseba Sarrionandia, Bernardo Atxaga eta Bertolt Brecht).

"Bidaia luzeko" disko gisa definitu du Mikel Lizarralde Berria-ko musika kritikoak Laboaren lan berria. "Laboarik heterodoxoena islatzen du, jendeak egozten dizkion eskemetara makurtzen ez den artista. Jazzarekin nahiz post-corearekin esperimenta dezakeena. Baina baita bere maisu izan zirenak omendu nahi dituen ikaslea ere".

Izan ere, Laboa esaldi batekin definitu beharko bagenu, halaxe definituko genukeelako: euskal musikan maisuen artean maisu.

MIKEL LABOA.



MAISU

Mikel Laboa Mansizidor 1934ko ekainaren 15ean jaio zen Donostiako Alde Zaharrean. Lanbidez mediku eta psikiatra, euskal kanta modernoaren kantarien artean maisu den euskal musikaria da. Benito Lertxundi-rekin batera, belaunaldi desberdinetan eragin handiena izan duen euskal musikari bakarrenetarikoa dugu. Berak egindako lanak gazteak zein helduak bereganatzeko gaitasuna izan du, eta belaunaldi ezberdinek beraren kanta ikasi eta zabaldu dituzte, baita euskararekiko atxikimendu eta maitasuna hedatu ere.

1962. urtean izan zen, Zaragozako (Espainia) Argensola antzokian euskaraz publikoaren aurrean abestu zuen aurreneko aldia. Garai hartan, Donostiatik Zaragozara joan zen Mikel, medikuntzako ikasketak amaitzeko. Ordurako musikarekiko zaletasuna bazuen, musikari lotutako familia batekoa baitzen.

Medikuntza ikasketak 1953. urtean hasi eta 1963an amaitu zituen. Urte haiek Madrilen, Iruñean, Zaragozan eta Bartzelonan igaro zituen. Laboa Ipar Euskal Herriko musika herrikoiaz interesatuta zegoen orduan, eta Katalunian zegoelarik Nova Cançó izeneko mugimendua ezagutu zuen. Pentsatu zuen posible

zela Euskal Herrian halako zerbait antolatzea, eta horretarako Lourdes Iriondo eta Benito Lertxundirekin harremanetan jarri zen. Euskal ikasle talde bat zegoen, eta Jorge Oteiza hitzaldi batzuk ematera ere agertu zen. Hari joan zitzaion aholku eske, berak Katalunian eta kultur esparruan Laboak baino esperientzia gehiago baitzuen. Oteiza, Azkuek idatzitako istorio batean oinarritu zen, orduantxe sortu zen talde berri bati izena jartzeko: Ez Dok Amairu.

Taldea osatu aurretik, alabaina, Mikel Laboak bere lehen diskoa grabatu zuen, 'Azken', 1964an, Baionan. Lau herri kanta baino ez zituen lan horrek. Ez Dok Amairu-rekin musika tradizionala aztertu, zabaldu eta gaurkotzen aritu zen bitartean, berriz, Laboak grabatzeko denbora ere izan zuen. 1966an, Bartzelonan, bigarren disko txikia grabatu zuen, eta Baionako Goiztiri etxearen eskutik argitaratu zuen zentsura gainditu ahal izateko. 'Ursuako kanta' zuen izena lan horrek.

Ez Dok Amairuk bere antzezpenekin aurrera zihonan, bai Euskal Herrian, bai Bartzelona, Madril eta Zaragoza hirietan, kasu. Bitartean beste bi disko kale-ratu zituen Laboak: Bertold Brecht (Baiona, 1969), eta Haika Mutil (Donostia, 1969).



LABOAK

BIZITZA BAT. *Hegan.*

TXORIAK. ASKATASUNA.

Ez Dok Amairu taldea 1972an desagertu zen, hamaika faktorek eraginda, baina Laboak (gainontzeko artistek legez) bere bakarkako ibilbidearekin jarraitu zuen. Euskaraz kantatzen hamar urte betetzerakoan, Mikel Laboaren kantagintzaren zutabeak finkatuta zeuden, 1974an grabatutako Bat-Hiru disko bikoitzean ageri zenez. Hiru disko batera ateratzeko asmoa eduki arren, Bertolt Brechten poemetan oinarritutako kantuek ez zuten gairitu orduko zentsura, eta bi diskorekin konformatu behar izan zuen. Diskoaren izenak -Bat-Hiru- adierazten du geroago beteiko zuen hutsunea. Ipar Euskal Herriko tradizioa izan zen nagusi grabaketa hartan, eta garaiko poema gehienak Joxean Artzerenak izan ziren. Hain justu ere, kantu guztien artean sinbolikoena eta ziurrenik muga guztiak gairitu dituen 'Txoria txori' izan zen. Lerro gutxi batzuetan islatzeko gai izan zen bere kantagintza osoan konstante bat izan den gaia: askatasuna.

Kritikak orokorrean oso ongi jaso zuen Mikel Laboaren lan hau, eta handik aurrera Euskal Herrian, Madril,artzelona, Londres edo Parisen hainbat kontzertu eman zituen. Hainbeste bidaia eta kontzertu ondoren, Mikel nolabaiteko nekea sentitzen hasia zen, eta etenaldi bat egitea erabaki zuen.

Denboraldi baterako erretiratzea erabaki zuenean Mikel Laboak kantu ugari zituen grabatu gabe; batetik, 'Bi' diskorako izan behar zuten eta zentsurak galarazi zituenak, eta bestetik, urte horietan sortutakoak. Horiekin guztiekin 1980an Lau-Bost diskoa atera zuen. Bertan, abesti herrikoiez eta Xabier Lete kantariaren edo Joxean Artze idazlearen olerkietan oinarritutako abestiez gain, kanta esperimental ugari aurkitu ditzakegu: Komunikazio-Inkomunikazioa, Orreaga eta Dialektikaren laudorioa.

Ilusioz eta gogotsu ekin zion atzera ere kantatzeari Mikelek, baina osasunak okerrera egin zion orduan, eta halaberharrez baztertu behar izan zituen atzerri-joateko eskaintzak eta kantaldien kopurua gutxitu behar izan zuen. Gaisoal-ditik atera zenean, '6' diskoa grabatu zuen, 1985ean, Iñaki Salvadorrekin batera.

Disko horretan Xabier Lete, Joseba Sarrionandia eta Bernardo Atxagaren olerkietan oinarritutako kantak egin zituen, eta baita zenbait kantaren bertsio instrumental ederrak ere (Haika mutil).

LEKEITIO GUZTIAK.

HAMAHIRURIK EZ.

Buruan bueltaka zebilkion ideia bat 1998an gauzatu zuen: kantu esperimental guztiak album batean biltzea. Ordura arte sortutako "Lekeitio" guztiak bildu zituen disko bikoitz batean: 'Lekeitioak', 'Baga, biga, higa' eta 'Itsasoa eta lehorra' kantak izan ezik beste abesti guztiak berriro grabatu zituen.

Beti egiten zuen legez, orduan ere 'Lekeitioak' argitaratu bezain laster, hurrengo diskoan pentsatzen hasia zen Mikel. Eta gauzatu zuen bere nahia, 1989an, '12' izeneko diskoarekin.

Bien bitartean, abentura kolektiboak eta helburu jator baten aldeko ekimenak gogo zituenez, Kubarra joan zen 90ean. Ez zen bakarrik joan, noski: 'Habanara joan nintzen...' izenpean kirola, musika, literatura, pintura, zinema eta gastronomia arloetako lagun talde zabala elkartu zen: Iñaki Perurera, Ruper Ordorika, Hertzainak, Bernardo Atxaga, Jose Luis Zumeta, Antxon Ezeiza, Karlos Argiñano eta Laboa bera. Euskal musika eta artea kanpora zabaltzeko asmoz sortu zuten ideia.

Ostean, atzera ere estudioan sartzea erabaki zuen lau urte grabatu gabe eman eta gero. Hamahirugarren grabazioa zen hura, baina Ez Dok Amairuren filosofiari jarraiki, '14' izena jarri zion lan horri (1994). Sortzaile gisa zituen egonezinak ederki islatu zituen bertan: atzera begira ere jarri zen, eta ildo esperimentalarekin landu zuen disko horretan. Mikelek oihartzun handia lortu zuen disko harekin, Espainian ere oso kritika onak erdietsiz. "Herri kantagintzaren iraultzaile" gisa definitu zuten kritikari batzuek.

'14' diskotik aintzina Mikelek zuzeneko hainbat disko eta bilduma argitaratu zituen. 40 urte baino gehiago kantagintzari eskaini dio Mikel Laboak, eta aurretik oraindik badu asko emateko. Musika etorkizun duen kantaria baita Mikel Laboa.



[maite lekue / saioa fdz. de arangiz]

Tabakoaren aurkako legea

Urtarriletik aurrera tabakoa erretzea debekatuta egongo da leku publikoetan, hala nola, lantokian, hainbat tabernatan, aisialdirako guneetan edo osasun zentroetan. Asko dira arau honen aurrean altxatu diren ahotsak, baita alde agertu direnak ere. Beraz, eztabaida mahai gainean dago.

1. Zer iruditzen zaizu urtarriletik aurrera abian jarriko den Tabakoaren aurkako legea?
2. Eraginkorra izango dela uste al duzu? Zergatik?
3. Lantokian erretzaileentzako guneak egotea ondo iruditzen?



Antonio Mascaro, ospitaleko langilea

- 1) Lantokian erretzeko debekuairen alde nago erabat. Hala ere, gainontzeko lekuetan, tabernetan esaterako, erretzaileentzako guneak egon beharko lirakeela uste dut.
- 2) Ez. Nire ustez, jendea ez da ados jarriko eta batzuek gauza bat egingo dute eta besteek beste bat.
- 3) Nire kasuan, ospitale batean lan egiten dut eta guztiak kalera irtetzen dira erretzera. Orokorrean esanda, lantoki guztietan erretzaileentzako guneak egotearen alde nago.

Honorio Corres, irakaslea

- 1) Gehiegizkoa iruditzen zait. Alkoholarekin, adibidez, ez dute ezer ere egiten eta nire aburuz askoz arrisku suagoa da.
- 2) Egia esan, ez. Hasiera batean nahasmena sortaraziko du, baina gero dena lehen bezala izango dela uste dut.
- 3) Ondo iruditzen zait, ados nago. Nire ustez beharrezkoa da.



Begoña Martin, irakaslea

- 1) Egunotan mundu osoan zehar tabakoaren aurka aurrera eramaten ari den prozesuarekin kontsekuentea dela uste dut.
- 2) Ez, hasieran ez dut uste oso eraginkorra izango denik. Lantokiaren arabera ere aldaketak egongo direla uste dut, adibidez, erakunde publikoetan errespetatuko da. Gainontzekoetan ez dakit.
- 3) Ez zait axola, egia esan.



IDAZLEENZUTABEA

UNDERGROUND

[txabi arnal gil]



Underground gara.

Hala eta guztiz ere, Barakaldon hamahiru mila lagun inguru bildu zen *Bertsolari Txapelketa Nagusiko Finalaz* gozatzeko. Harrigarria.

Underground gara.

Baina abenduan, lau egunetan, milaka lagun hurbildu zen Durangoko Landako pabilioiraino *Euskal Liburu eta Disko Azoka* bisitatzerara.

Errentagarria.

Underground gara. Eta, hala ere, batek daki zenbat lagun joaten den euskararen aldeko *Kilometroak*, *Nafarroa Oinez*, *Arabak*, *Euskaraz*, *Ibilaldia* eta *Herri Urrats* egunetan parte hartzera, laguntzera.

Hunkigarria.

Underground gara Atxagaren eta Armendaritzen arteko lanak Hollywooderaino bidaia egin duen arren.

Ikusgarria.

Underground gara Mariasun Landaren ohe azpiko krokodiloek 2003ko "Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil" eskuratu bazuten ere.

Txundigarria.

Underground gara. Hala eta guztiz, Unai Elorriagaren *S.P.rako tranbiak* 2002ko "Premio Nacional de Narrativa" Euskal Herrira ekarri zuen.

Izugarria.

Underground gara, nahiz eta euskaraz soilik idatzitako egunkari bat eta hamaika aldizkari ditugun.

Txalogarria.

Underground gara komunikabide handietan ez gaudelako.

Hala ere, bizi gara, bizirik gaude.

Bizigarria.

Underground gara?

Euskal entziklopediek *underground* hitza-ren esanahia zuzendu beharko lukete?

INIGO DURANA

"Ohikeriak beldur ematen dit"

Iñigo Durana
gasteiztarak 30 urte
bete ditu udazken
honetan. Gauza
berriak egin eta
aurkitzea du zaletasun
nagusi. Horrexegatik
etengabe ikasketak
burutzen ditu bere
administrari lanak libre
uzten dion aisialdian,
hizkuntzak, bizipen
berrietara
murgiltzea... Azkena,
eta guztietan
sakonena, udaran
Perun egindako
borondatezko lankide
lana, bere bizia guztiz
indarberritu duena.

✓ 3 hilabete izan da Perun
kooperante gisa, bere bizitzako
hainbat kontzeptu aldatu dituen
esperientzia: haurtzaroari,
pobreziari eta komunitateari
dagokiena, kasu

✓ zinema, musika eta kontzertuak,
liburuak... ditu zaletasun eta
gutizia.

✓ gauza berriak deskubritzea
gustuko du, horrexegatik
etengabe ikasten aritzen da; une
honetan 'giza hezkuntza' uned-en

[maite lekue]

Duzun biziorik handiena? Zinema da nire bizio
kuttuna.

Eta bertutea? Ekimen handiko pertsona naizela.

Akats bat? Kontraesankorra izatea.

Bizitzari zer eskatzen diozu? Inoiz ez gogaitzea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Edozein
motatako injustiziak.

Geu elkarte eta aldizkariaren berririk bai?

Bai noski, harpideduna naiz hasiera-hasieratik.
Lehenengo alea gordetzen dut oraindik ere.

Egunkari bat? Gezurrak kontatzen ez dituen hori.
Bat bera ere ez.

Telebista saio bat? Mementoan emititzen ez
den 24 izeneko saioa.

Fobiarik, beldurrik? Ohikeriak beldur ematen
dit.

Oporrak non eta zertarako? Turistak ez diren
hartan. Gehienbat bertako jendea ezagutzeko,
baita leku berrietara iristeko ere.

Eta nora ez zinateke joango? Cancunera edo
hotelen gethoa eskaintzen den leku horretara.

Eguna ala gaua nahiago? Biak ditut gustuko.
Eguna lagunekin izateko, ikasteko... Gaua, aldiz,
norberaren onena ateratzeko.

Liburu bat? La fiesta del Chivo, Mario Vargas
Llosarena.

Pelikula bat? En busca del Arca perdida.

Edari bat? Cava.

Janari bat? Txokolatea.

Kolore bat? Urdina.

Musika talde bat? Aerosmith, dudarik gabe.

Zer da Gasteizek duen onena? Dena hurbil
dagoela.

Eta txarrena? Batzuetan txikiegi gelditzen dela.

Eta zein da Perun aurkitu duzun onena?

Edozein lekutan bezala, bertako jendea.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Segun eta
zein giroan mugitzen zaren bai.

Amesgaizto bat? Maite ditudanekin ez izatea
egunen batean.

Zer eskatzen du herriak? Etxebizitza eskuragarria
denontzat.



ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ



XABIER AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97



gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

IRYSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN

Artisan



Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

LA RIOJANA jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

titanioa² = Softtitanium

titanioa baino askoz gehiago

Softtitanium

Orain 120€ tan

+malgutasuna+erresistentzia+titanioa


ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

‘Legutiano aldeko euskara’ &

‘Euskara batua, ezina ekinez egina’



Udazken honetan euskararen inguruko liburu bi argitaratu dira. Batetik, Legutiano aldean oraindik bizirik dirauen bertako euskara ezagutzera ematen duen ‘Legutiano aldeko euskara’. Bestetik, euskara batuaren historia aztertzen duen ‘Euskara batua. Ezina ekinez egina’ liburua. Bere egileekin solas egin dugu bi lanen inguruko xehetasunak ezagutzeko asmoz.



'LEGUTIANO ALDEKO EUSKARA',

Imanol Garcia eta Ignacio M. Carrera

"Arabian bertan gurea den euskara topa dezakegu, baita bizirik dirauen tradizioa ere"

ignacio carrera eta imanol garcia

Aramaio Arabian dagoen udalerrri euskaldun bakarra dela pentsatzen dute askok. Hala ere, Imanol Garciak (Gasteiz, 1975) eta Ignacio M. Carrerak (Eibar, 1947) uste hori desegokia dela argi asko utzi dute urrian argitaratu zuten "Legutiano aldeko euskara" liburuan, Arabako Foru Aldundia eta Euskaltzaindiaren laguntzaz. Lan honetan egun Legutiano (Billerle euskaldun zaharrentzat) aldean bizirik dirauen mintzaira erakusten da, zehazki, Legutiano, Ollerias, Elosu, Urrunaga eta Nafarrate herrietan oraindik hitz egiten den bertako euskara. "Gauza bitxia gertatzen da bertan", diosku Ignaciok, "nabaritasunak aurkitu ditugulako Billerlen mintzatzen den euskara, batetik, eta Ollerias, Nafarrate, Elosu eta Urrunagan mintzatzen denaren artean. Desberdintasun gutxi dira, baina lexiko aldetik eta aditzean aldaera batzuk topatu ditugu", gaineratu du.

Lanak bertako euskara mintzatzen duten 70 urtetik gorako 17 hiztunekin izandako elkarrizketak biltzen ditu bi CDtan. Hauek guztiak 2000-2004

urte bitartean egin ziren; bi izan ezik, 1984 urtean Xabier Barrutietak egindakoak, hain zuzen ere. Horrekin batera, liburuan elkarrizketak hauek guztiak

agertzen dira transkribatuta; bertako euskaraz, batuaz eta gazteleraz. "CDak entzuten diren bitartean liburua irakurtzea funtsezkoa da, elkarrizketak ulertu ahal izateko eta inguru horretako euskaldunen berba, doinua, musika eta azentua entzuteko", azaldu du Ignaciok. Bestalde, bertan kontatzen diren istorioak interesgarriak dira oso, orokorrean beste garai bateko bizimodua azaltzen dutelako; sinesmenak, festak, nekazaritza, landareak eta abereak edo garai bateko lanbideak, esaterako.

- Zergatik erabaki zenuten liburu hau idaztea?

Imanol: Euskal Filologia ikasten ari ginen eta Henrike Knörr irakasleak Urrunagan oraindik ere bertako euskara mintzatzen zuen andra bazegoela esan zigun. Berarengana grabaketa bat egitera joatea erabaki genuen. Inguruan oraindik euskara hori hitz egiten zuen jende gehiago topatu eta liburua egitera animatu ginen.

Zein izan da euskarari egin nahi izan diozuen ekarpena?

Ignacio: Gure helburua Legutiano aldeko euskara eta bertako euskaldun mundua ezagutaraztea izan da; oraindik bertako euskara hitz egiten duten euskaldun zaharrak badaudela eta gainera Gasteiztik oso kilometro gutxira euskara hori existitzen dela. Bestetik, lan etnografikoa ere bada, ohiturak eta tradizioak ezagutzera ematen baitira.

Imanol: Arabian bertan gurea den euskara topa dezakegu, baita neurri batean bizirik dagoen tradizioa eta hori jakin behar dugu. Hau da, arabarrak izaki, euskaldunak ere izan gaitezkeela, eta gainera euskara on batekin.

- Etorkizunari begira, zein da zuen hurrengo lana?

Ignacio: Interesgarria litzateke lan honetatik unitate didaktikoak ateratzea, Legutianoko haurrek bertako euskara ikas eta erabili dezaten.

Imanol: Horrez gain, grabaketak egiten jarraituko dugu.

'EUSKARA BATUA, EZINA EKINEZ EGINA',

Koldo Zuazo



“Euskara batua eta euskalkiak osagarriak dira, bakoitzak bere funtzioak baititu”



Koldo Zuazo (Eibar, 1956) hizkuntzalari, EHUKo irakasle eta Euskaltzaindiako kide urgazleak euskara batuaren historia eta nondik norakoak biltzen dituen lana argitaratu du. Bertan historian zehar euskara batzeko egin diren proposamenak eta euskara batua nola egin zen eta zertan datzan azaltzen dio irakurleari. Etorkizunari begira, euskara batua hobetzeko proposamenak ere biltzen ditu argitalpen honetan.

Liburu hau 1988 urtean egileak argitaratu zuen euskararen batasunaren inguruko doktoretza tesian oinarrituta dago. “Honetan erabiltzen nuen hizkuntza-unibertsitate giroko jendeari begira egina zen eta nire asmoa jende arruntarentzako lana egitea izan da,

laburragoa eta erosoagoa”, azaldu du Koldok. Harrezkero hobekuntzak egon dira, denbora tarte honetan gauza asko aldatu dira, eta horrez gain, euskara batuaren inguruko balorazioa egiteko une egokia zela pentsatu zuen idazleak.

– Zein izan da liburu honekin euskarari egin nahi izan diozun ekarpena?

Batetik, jendearen artean desinformazioa dagoela uste dut. Batzuek, bizkaikoek adibidez, uste dute euskara batua Bizkaikoak ez den gauza dela eta euren eguneroko hizkuntza aldatzen dutela euskara batuan jardutean. Baina hori ez da egia. Euskara batuan aditza, deklinabidea araututa dago baina hiztegiari dagokionez ez da erabakirik hartu, hau da, jatorria eta euskalduna bada edozein hitz erabil daiteke. Orokorrean ideia nahiko murrizta dugu euskara batuaren inguruan, soilik gipuzkoarren euskara dela uste baitugu. Bestalde, jendeak pentsatzen du euskara batua beti erabili behar den euskara dela. Egokia da erabiltzea Euskal Herri osora zuzentzen garenean, komunikabideetan, esaterako.

– Zein da euskara batuaren egoera gaur egun?

Nahiko ona da. Jende askok onartu duela uste dut, baita konpondu beharreko gauza asko badaudela ere, adibidez, Iparraldean euskara batua Hegoaldeko hizkuntza dela pentsatzen dute eta hegoaldean, aldiz, Gipuzkoakoa dela. Hauxe da beraz, aldatu beharrekoa.

Euskara batua gurea dela onartu behar dugu euskaldun guztiok, baita euskara batua ez dela euskalkiak baino hobea edota txarragoa ere. Herri euskaldunetan bertako euskalkia erabili

behar da esparru jakin batzuetan eta beste batzuetan, ordea, batua. Osagarriak dira biak, bakoitzak bere funtzioak ditu.

– Euskara batuak onuragarria izan al da euskararentzako?

Garbi dago bere historian zehar jendeak gauza askotan amore eman behar izan duela eta sakrifizioak egin direla. Baina orain ikusten da oso positiboa izan dela. Hori esker, adibidez, euskaldun berri mordoak dauzkagu eta bestetik, guk euskaldunok gure artean hitz egin eta elkarri uler diezaiokegu, Iparraldekoekin esaterako.

– Zer gertatuko da etorkizunean?

Eskeletan eta hedabideetan euskara batua sartu da eta nahi gabe euskara berdindu egingo da. Hori ona dela uste dut. Azken batean, jakin behar dugu euskalkiak ez direla uste dugun bezain naturalak. Euskararen kasuan, inkomunikazioaren eta zatiketa administrazioaren ondorioa dira euskalkiak, baita euskara ez ofiziala izatearen ondorioa ere. Nire aburuz, euskararen osasuna ona izanez gero, eta leku guztietan hizkuntza ofiziala izango balitz, euskara batuaren osasuna ere ona izango litzateke eta euskalkiak bizirik mantenduko lirateke.

Legutiano aldeko euskara

Legutiano aldeko euskara Otxandioko azpibariaterekin dago lotuta, mendebaldeko euskararen barruan, hain zuzen ere. Nabaritasunak topatu dira, batetik, Legutianon hitz egiten den euskara eta, bestetik, Elosu, Nafarrate, Urrunaga eta Olleriasen mintzatzen den euskararen artean. Desberdintasunak txikiak dira; halarik ere, lexikoan eta aditzean aldaerak sumatu dira. Elosun, esaterako, aski ezaguna da Arabako toponimian oso arrunta den hitza, *perra* edo *perrie* (*etxe ondoko soloa*). Legutianon, aldiz, ez dute hitz hau ezagutzen. Landareak edo animaliak izendatzerakoan ere aldeak daude herri batetik bestera. Aditzari dagokionez, herri guztietan oso erregularra dela nabarmendu behar da.

adibiderik adibide

> 'euskararen gainean' (Billerle, 2002ko maiatzaren 9a)

berriemailea: eulogia basabe biteri (1915ean jaioa)

inkestagileak: ignacio m. carrera garmendia & imanol garcia uriarte

Etxaguenen bai, eon die euskaldunek an, bai [eta Etxaguengo euskera eta Elosukoa...], Elosukue antzekuek [antzekoa], bai [antzekoa]. Eta orain zuk egiten dozun eskuera, nongoa da, Elosukoa edo Billerlekoa?, ni, ni Elosukue, Elosukue, ya, nire... arrera jarraitu biakot, ba, barridxe, aldiko, ba bai illobiek esaten dost, onen alabiek, "amama ori esta alan esaten", "bueno ba nik alantxe ikasi dot!", klaro! oneik oso diferenti eiten dabie oin, osea batuaue... euskera metuaue [=jantziagoa], gurie, gurie da txapurreau! [ez, ez, polita da], es? estakit, ni penie dauket es ikesi e, euskera, euskera, seraue, obie! [zuk egiten dozuna politagoa da], bai? estakit pa [duda barik, naturalagoa]...

> 'garai bateko lanbideak' > Urrunagako benta (Apodaka, 2001eko apirilak 20)

berriemailea: eugenia ortiz de zarate galdos (1919an jaioa)
inkestagileak: ignacio m. carrera garmendia & imanol garcia uriarte

-Eta zure gizona nongoa zan, Urrunagakoa?

-Nire gizona? [bai], nire gizona san koñatue, nire aistie il san ta geratu san lau semegas, nire koñatue, ta beragas... eskondu nintzen, da gero, gero euski (sic) gebesen bost, bost seme-alaba [eta nongotarra zanbera?], neu? angue [Urrunagakoa?], bai, bai [eta beragaz euskaraz berba egiten zenuen?], bai, bai [bai...], bai baña eskeben serten, selan go(i)xen presie eguan jentie biarrien da ola, da gu(k) tabernie gauken, ba eskeben eiten euskera, bestelan bestiek txarto sertu juten (?), selan beraiek estakidxe(n) eskuera... eskeben... nire gizona(k) ondo dakidxen eskuera baña eskeben (e)iten eskuera...

> 'festak' (Elosu, 2001eko martxoa)

berriemailea: gregorio biteri mendieta (1922an jaioa)

inkestagileak: ruben sanchez bakaikoa, ignacio m. carrera garmendia & imanol garcia uriarte

-... Bai, e, oingo, lengo kontuek ba... bol... beti... [kontatu baten bat ba!], Jo! Emen e, oñes da joate giñen orra, Suigoitidxera (=Zigoitira)... da or Gopegin eite san dantzia, da an igual, ba, dantzan ibili neska bategin, da gero igual an e, lau edo bost kilometro laguntzen neskiari ta gero andi oñes etzera ortik basorik baso, joe!... jo! an itzela san! or egun baten bakarrik nentorren, Manurgaraño joan neska bateri laguntzen, da orti (o)ñes or senda bat egoan da, sulo batzuk egoasen, jausi nintzen sulo batera... bildurre sartu dxaten da geidxao enintzen joan!... joder, gabes!...

> lan hau posible egin duten hiztunak:

BONIFACIA AGIRRE ORTIZ DE ZARATE (URRUNAGA, 1904/2/11) (hilda)
EULOGIA BASABE BITERI (ELOSU, 1915/3/10)
DIONISIO BITERI GARCIA DE KORTAZAR (ELOSU, 1925/2/8)
GREGORIO BITERI MENDIETA (NAFARRATE, 1922/3/12)
SABINA CASTAÑARES ITURBE (OLLERIETA, 1916/12/11)
CIPRIANO DIAZ DE MENDIBIL BITERI (NAFARRATE, 1924/9/16)
GARBIÑE DIAZ DE MENDIBIL BITERI (NAFARRATE, 1932/12/2)
FERNANDO EGINO LOPEZ DE ARETXAGA (BILLERLE, 1928/12/14)
FAUSTO GONZALEZ DE MENDIBIL GOIKURIA (ELOSU, 1913/9/22)
SATURNINO LOPEZ DE ARETXAGA GARAITA (BILLERLE, 1899/11/29) (hilda)
FRANCISCA LOPEZ DE ARETXAGA LEJARAZU (URRUNAGA, 1896/10/9) (hilda)
EUGENIA ORTIZ DE ZARATE GALDOS (URRUNAGA, 1919/3/13)
TOMAS RUIZ DE ERENTXUN ABASCAL (ELOSU, 1910/12/21)
JOSE SAENZ DE BITERI SAENZ DE BITERI (BILLERLE, 1925/5/3)
MIGUEL SAENZ DE BITERI SAENZ DE BITERI (BILLERLE, 1923/9/23)
NEMESIO UGARTE ORTIZ DE ZARATE (BILLERLE, 1925/2/20)
SUSANA UGARTE ORTIZ DE ZARATE (BILLERLE, 1932/5/241)

bitxiak / zilarra / osagarriak

Erregeetarako bilatzen ari zinena, bertan!

Opari merke eta originalak!

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



EYSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege aldea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confecciones Pinedo JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Bacalao Giraldo



- Egunko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Sagardotegia

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHA
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA
MERIENDAK

Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Euskadik behar zaitu



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

MAKALA

Afrikako hiri bat



Makala goitzenaren atzean zer dagoen deskubritzerik nahi? Mikel Unzurrunzaga Smichtz zaraustar musikari, dj eta, hori gutxi balitz, surflaria. Bere nortasuna bateratzen duen hori guztia Metak-ekin atera duen 'Hondartzan' diskoan suma daiteke. Hamabi abestiz osaturiko bere azken lana irekiz gero funk, dub, hip-hop, reggae eta elektronika aurki daitezke.

[josune v. de mendizabal]

Ez da makala zaraustar hau, eta bere izengoitia-ri men eginen. Berlinetik etorri berria da, Madril, Bartzelonan eta Euskal Herriko hiriburuetatik bidaiatzen eman duen bira amaitu ostean. Azaldu duenez, "Berlinera saio bat eskaintzera joan naiz eta bide batez ere, munduko musika ezberdin bilduma horretan azaltzeko aukeratu duten nire disko 'Bizi Pozik' kanta EHko ordezkari gisa aurkezttera". Ez da hemen geratzen gazte honen gogoia eta aitortu duenez, "hurrengo urteari begira, udaberri partera, asmoa dut talde bat osatzeko (seikote bat ziurrena), eta herriz herri (hiriz hiri) jotzeko ahal dugun moduan, beti xede batekin, jendea dantzaraztea!!!"

Denetarikoinuak jasotzen ditu zure musikak, zuk zeuk ere denetarik jasotzen eta islatzen duzun moduan, surfaria, dj-a, abizen euskalduna, alemaniarra bigarren abizena... Mestizaia ederra ematen du...Zerk gehitzen dio zure izaerako alderdi bakoitzak zure musikari?

Bai egia da ez naizela konformatzen estilo bakar bat jorratzen. Musika anitza dut gogoko eta azken urteotan asko ikasi dut eta ikasten ari naiz munduko musikaz, bidaiei esker eta beste hainbat esperientziengatik. Disko honetan saiatu naiz bizipen hauek guztiak deskribatzen, ikuspuntu pertsonal batetik noski.

Zure musikak denetarikoinuak nahasten ditu... Nola definituko zenuke? (definitzerik balego, behintzat)

Eklektikoa definituko nuke, hori bai musika beltzean oinarritua, zeren hori izan baitaiteke kantei komunean duten filosofia edota sustraia.

Dj-ak beti goitizenez dira ezagunak. Makala zurea, zergatik?

90 hamarkadaren erdian, dj-ek ezizenak ipintzen jardun zuten eta niri Makala izendatzea tokatu zitzaidan. Bat-batean goitzen bitxi hau bururatu zitzaidan, euskaraz esanahi asko daukana, eta gaur arte mantendu dut. Fonetikoki atsegina zait. Gainera ez bakarrik euskaraz, beste hizkuntzetan ere esanahi ezberdinak ditu, adibidez, hawaiieraz neska izena da eta Afrikako Kongoko hiri bat ere bada.

Hauze zure bigarren lana. Lehenengoarekin alderatuta zein desberdintasun aurki daitezke?

Berez hau nahiz eta bigarren lana izan, niretzat lehendabizikoa da. Aurrekoa 2002 urtean kaleratu nuen, 'Makala plays Novophonic' dj mix diskoa; ez ziren bereziki nire kanta, baina nire esku zegoen biltzea, aukeratzea eta nahastea musika sorta hura, hain zuzen desagertutako Donostiako Novophonic diskoetxearena. Aldiz, 'Hondartzan' disko hau, nik sortutako musika da, eta pertsonalki asetasun handiagoa eman dit nire kanta landu eta emaitza horrekin azaldu izanak.

ibilbidea & kolaborazioak

"Musika munduan hasi nintzen txikitatik, baina hasiera batetik bildumazale bezala (melomanoa), ez musikari gisa. 15 urterekin pare bat irratsaio egin nituen Zarauzko Arraio irrati librean (aspalditik desagertuta), eta horrez geroztik ez naiz gelditu, pintxatzen bai musika tabernetan, bai jaialdietan, bai mila leku ezberdinetan. Eta musikari bezala, 90 hamarkadaren hasieran hasi nintzen baxua jotzen, hasieran punk taldeetan, beranduago beste soinu beltzagoekin. Gaur egun gehien interesatzen zaidana kantatzea da, eta horretarako ikasi behar dut, zeren musika-tresna atsegina eta zailena da, dudarik gabe, ahotsa".

edo Hawaiko neska bat?



[arg.: galder izagirre]

diskografia

MAKALA PLAYS NOVOPHONIC

"Zarautzko Dub" • CD Single • 2002

© Novophonic / So Dens / Universal

MAKALA PLAYS NOVOPHONIC

"Askoren Artea" • CD Mix • 2002

© Novophonic / So Dens / Universal

TRIO KEMPES

"Summer City Love" • Single 7" (biniloa) • 2002

© Novophonic

NO BORDERS - NO NATIONS - NO WARS

Makala - "Red Light" • Maxi Single 12" (biniloa) • 2003

© Duplikat Records (Germany)

BASQUE ELECTRONIC DIASPORA VOL. 3

Makala - "Putzlee" / CD Compilation • 2003

© Metak (EH)

BASQUE PLANET

compiled by Fermin Muguruza. Makala - "Zarautzko Dub"

• CD + Maxi Single 12" (biniloa) • 2004

© Wagram Music (France)

kolaborazio diskografikoak

DIGI ONZE

"Onze Sports Vol. 1" / Doble Single 7" • 1998

© Novophonic / Ama Records

(Ahotsak "Onze el Campeón del Ping Pong" eta "Safari-Hari")

CHAZAM Y LOS ECLÉTRICOS

"El Trombonero" (Trio Kempes mix) / Maxisingle 12"

• 1999 © Novophonic / So Dens

• (Trio Kempes-en errmixean ahotsak)

INSTRUMENTAL

"All Shück Up" (dub) / Single 7" • 2000

© Novophonic

(Singlearen B aldean ahotsak)

-GAILU

"Ezin" (Trio Kempes) / CD • 2002

© Pil Pil Sessions / Metak

(Hitzak moldatu, ahotsak eta baxua)

JAVI P3Z ORQUESTA

"Sports" / CD • 2004 © HiTop (Baxua eta ahotsak)

remixak

SAGARROI "TOULOUSE"

Bonus Track -

"Makala Oinez

Remix" / CD o

2004 © Metak

cd-a

diaspor han

bat gehio / 2004ko iraila / www.hotsak.com

ez da inondik inora ohiko taldea bat gehio. katalunian sortu arren, paisos catalans eta euskal herriko lagunak elkartzen dira bertan. diasporan dabilen euskaldun talde batek topo egiten du bartzelonan 90. hamarkadaren bukaeran. hemendik dator gaztelupeko hotsak diskoetxearekin ateratako diskoaren izena: 'diaspor han'. euskaraz abesten dute eta rumba, popa, jazza eta flamenkoa modu naturalean, mestizaian, nahasten dituzte. eneko narbarte (gitarra elektrikoa, koruak), guillermo trujillano (gitarra, koruak), juan a. gerra (baxua), davis carreras (bateria) eta julen cobos (ahotsa), dira taldeko partaideak. 2002ko irailean 'bihar agian' maketa argitaratu ondoren kataluniako entzulegoaren aurrean aurkezten dituzte euren kantuak bartzelonako borne auzoko lokaletan. baionako 'gazte lehio' lehiaketa irabazi ondoren, taldea buru-belarri hasi zen lehen disko luzea izango denaren ekoizpenarekin; hainbat musikariren laguntza izan zuten eta ojos de brujo taldearen kolaboratzailea den paco roman teknikariaren estudioan grabatu zuten. 2004ko irailean kaleratua.



liburua

kleopatra

jon arretxe / elkar / 2005eko azaroa

detektibe-istorio umoretsu eta ganberroa egin du jon arretxek, orain bi urte plazaratu zuen manila konexioa haren ildotik.

simon artabe eta bere laguntzaile etxebe, munduko ikertzaile xeble eta kalamidadeen kasu berri bat argitu nahian dabilta, direnak eta ez direnak lardaskatuz eta endredatuz.



liburua


guti

kirmen uribe + antton olariaga / elkar / 2005eko abendua

garai batean barku bakoitzean txakur bat izaten zen. tripulazioko beste bat zen txakurra. halakoa da guti, txakur txikia, arratoi txakurra, txakur bizkorra eta bere kasakoa, marinel guztiak bezala.

kirmen uribe idazle ondarrutarrak ondo ezagutzen ditu marinelen bizimodua eta gorabeherak, eta berak dio guti eta hura bezalako txakurrak proletarioak direla, beharginak. eta hemen agertzen diren gutiren historiak eguneroko bizitzarekin eta arrantzaleen bizimoduarekin lotuta daude, eta guti heroia da, eguneroko bizitzan sortzen baitira heroirik handienak eta abenturarik zirraragarrienak.

antton olariaga marrazkilarik handiak harritu egin gaitu beste behin. maisu-lan bat. lan aparta, antton, txapela kentzeko modukoa.



ZUZENA, BESTERIK EZ

[txabi arnal gil]



Ohiko familia eredua ez da bakarra, zalantzarik ez. Gaur egun, guraso bakar bateko ala guraso homosexualen osaturiko familia ereduak ere zeharo gizarteraturik ikus ditzakegu, sarritan seme-alabak dituztenak.

Askoren gustukoa ez bada ere, honen guztiaren lekuko komunikabideak izaten dira, besteak beste zinea eta literatura; eta azken honi dagokionez, haur eta gazte literatura bereziki. Eta egia da literaturak, pertsonon hezkuntzan duen eraginarengatik, ez lukeela sekula ahaztu behar mundua kolore eta ehundura anitzekoa dela, eta "gizarte-ortzadar" honetan guztion interesak, beharrak eta eskubideak aintzat hartu beharrekoak direla.

Azken urte hauetan honelaxe ulertu du Bellaterra Argitaletxeak, eta gu bat gatz berarekin. Honen adierazpide *Paula tiene dos mamás* (Lesléa Newman, Mabel Piérola) irudi-albumean kaleraturiko ipuina.

Ipuin honek lesbiana bikote baten egunerokoak hitz egiten digu, bikote horren alabaren, Paula, eta eskolakideen arteko harremana azpimarratuz. Azkenean ikusiko dugu protagonistaren lagunek ere oso familia "bereziak" dituztela, eta guztiek onartzen eta errespetatzen dituztela euren nahiz besteen berezitasunak.

Mezua ulertzea ez da batere gaitza gertatzen. Aniztasunaren aldekoa da. Gu baita ere. Hala eta guztiz ere, gure ustez liburu honek mezua helburu nagusia duten obra gehienek gabezia ez du gainditzen: imajinario edo irudimenik ez dago, istorioa eskasa da, literatura urria.

Eta hau guztia gabe edozein ipuinekin panfleto bihurtzeko arriskua dauka.

[erredakzioa]

■ kalamuaren kontsumitzaileen elkarteak arabian

arabako mariaren lagunak elkarteak euskal herrian abian jartzen den kalamuaren kontsumitzaileen bosgarrena da (bizkaian bi daude, eta beste bi gipuzkoan). mariaren lagunak taldea (www.amigos-demaria.com) iragan udaren ondoren sortu zen, baina lehen asanblada irekia abenduan egin zuten, gasteizen. elkartearen asmo nagusia kontsumoari buruzko argibideak gizarteratzea da, bai eta hartzaileen eskubideak errespetatzea ere. mariaren lagunak taldea eratu da gasteizko hedabide batzuek nerabeek ikastetxeetan egiten duten drogen kontsumo handiaren berri eman duten garaian. albiste horien eraginez, poliziek areagotu dute zenbait eskolatan egiten zuten segimendua.

■ gasteiz-londres hegaldia otsailaren 17an egingo da lehen aldiz

datorren hileko 17an gasteiztik londresera hegaldia egin ahal izango da aurreneko aldiz. arabako foru aldundiak ryanair konpainiarekin egin duen akordioari esker, egun horretatik aurrera egunero hegaldi bat aterako da forondako aireportutik londreseko stansted aireportura. prezio berezia jarri dute hegaldietarako: 4,99 euro gehi tasak. gainera, lehen hegaldia egiten duten bidaiari guztiei beste hegaldi bat oparituko diete. egindako aurreikuspenen arabera, eskaintza berri horrekin gasteizko aireportuak urtero 50.000 bidaiari berri bereganatuko ditu.

■ euskal y-aren lehen zatiaren lanak aurtan hasiko dira

abiadura handiko trenaren (aht) arabako zati bat egiteko baimena eman zion abenduan espainiako ministroen kontseiluak sustapen ministroari, jaurlaritzak eta espainiako gobernuak azpiegitura hori egiteko lortutako akordioaren lehen urrats gisa. aurreikuspenen arabera, aurtan hasiko dira lanak eta 2010erako trenbide guztia eginda egotea espero da. arratzu/ubarrundia-legutiano (araba) arteko 5,2 kilometroko zatia izan da lehiaketa publikora ateratu den lehen zatia. lanak 43,8 milioi euroko aurrekontua dute, eta 27 hilabetetan egin beharko dituzte, espainiako gobernuaren esanetan.

■ gasteizko olabide ikastolak zilarrezko 'q'a lortu du

joan den ikasturtean ospatu zuen olabide bere berrogeigarren urteurrena eta orain lortu berri du sari hau. euskaliteko ebaluatzaileek, 'efqm' eredu ikastetxean aplikatzeak nolako emaitza onak eman dituen egiaztatu ondoren, eta ebaluazio-aktan ikasle, irakasle eta gurasoen gaitasun eta jarrerarekin zerikusia duten hainbat alderdi bereziki aipatu ondoren (elkarrizketatu ikasleen hausnarketen heldutasuna eta sakontasuna; ikastolako langile eta zuzendaritza-taldearen konpromisoa erabateko kalitatea lortu ahal izateko kudeaketa-eredu hori ezartzerakoan; eta ikasleei begira zein ikasleek lorturiko emaitzak), saria ematea ebatzi zuten. horrez gain, olabide ikastolaren identitate-ezaugarrietako bat da eskola-elkartean familiek parte hartzea, eta hori ere azpimarratua izan da.

■ 16 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoentzako euskarazko webgunea abian

ikastolen elkarteak 0 eta 16 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei eta haur zein gazte horiekin lan egiten duten profesionalei bereziki zuzendutako kontsulta gunea abian jarri du. www.semealabok.net helbidean hezitzaile



eta gurasoek adin txikiko arazoei buruzko gomendioak aurkitu ahal izango dituzte. ikastolako guraso eta hezitzaileek amaraunaren bidez plazaratu ditzakete beraien kezak eta galderak, eta web-eko arduradunek bide bera erabiliz emango dizkiete erantzunak, euskaraz.

■ mihiluze lehiaketa

urtarrilean hasiko den programa berri bat prestatzen ari dira etb1-en. hizkuntz jolasak eta umorea ardatz dituen lehiaketa izango da eta kike amonarriz aurkeztuko du.

lagun talderik mihiluzeenaren bila dabilta, jende berriaren, umoretsuenaren, drogosoarenaren bila. horretarako, lehiakideak behar dituzte, eurekin ongi pasa nahi duen jendea behar dute.

programa bakoitzean hiru taldek hartuko du parte eta talde bakoitza hiru pertsonaz osatua egongo da. sari bikaina izango da programaren finalean.

>lehiaketak 7 proba desberdin izango ditu eta talde bakoitzak erabakiko du zein taldekidek hartuko duen parte proba bakoitzean:

-mihintzioka (agindu zerbait)

keinu bidez lehiakide batek taldeko beste bati zerbait egiteko agindu.

-zer diote?

egoera edo film zati barregarri bat bideoz aurkeztuko da. bukaera zein izango den asmatu.

-hi potolari!

bertso baten errimak asmatu.

-esamesak

sms klabeen idatzita dagoen mezu bat deszifratu.

-bixkor-bixkor

minutu batean erantzun beharreko galdera sorta (umore klabeen).

-berbamerkeak

hitzecko umorea: txisteak, bakarriketak, imitazioak, bertsoak...

-ehs. ezetz hau saldu.

erabilerarik ez duen aparailu bat saltzen saiatuko da lehiakidea aktore baten laguntzaz.

"animatu zaitez eta deitu lotsarik gabe. zuen zain gaude!!!!"

oihana edo nerea (mihiluze): 943011784



■ bertsolaritzak goia jo zuen barakaldon, bertsolari txapelketa nagusiko azken saioan>

erabili.com

>milaka bertsozale hunkituta

12 milatik gora bertsozalek zutik eta esku-zarta betean hartu zituzten bertsolariak goizean eta gisa berean agurtu zituzten iluntzean bertso aldiaren bikaina eskertzeko.

bertsoaren eta bertsolarien indarra behin eta berriro ikusi zen goiz

nahiz arratsaldeko bertso saioetan: orain irribarre, gero algara eta hurrena, berriz, begiak malko betean ziren entzuleak bertsoaren esanak eta sortutako giroaren zabal-lak hunkituta.

zirrara gainera, bukaera-bukaera artekoa izan zen: imanor lazkanok andoni egañari txapela jantzi artekoa.

zazpi euskal herrietatik etorritako jendetza elkartu zuen barakaldok eta guztiek bertsoa eta euskara zuten elkargune eta ulergune. euskararen herria atzo herriago izan zen barakaldon.

>gaztetuta

bertsolaritza gaztetuta dago. atzo oholta ganean eta beheko eserleketan gazte jendea zen ugari. bertsolaritzan gaztea ere bultzaka dator: bertsozale eta bertsolari. atzoko protagonistetako bat, zalantzarik gabe, bilbao exhibition centerren bertsoak entzutera elkartu ziren gazteak izan ziren.

erabili.com

>puntuazioa

honatx finalean kantatu zuen zortzikoteak lortutako puntuak eta azken sailkapena:

1. andoni egaña 1.796,5 puntu
2. unai iturriaga 1.746 puntu
3. maialen lujanbio 1.206,5 puntu
4. amets arzallus 1.206,5 puntu
5. igor elortza 1.174 puntu
6. sustrai colina 1.171,5 puntu
7. aitor mendiluze 1.156 puntu
8. jon maia 1.156 puntu

zorionak guztioi!!!

EMAKUMEEN HITZA BIZIRIK

III. TOPAKETA FEMINISTAN


“Gatazkaren konponbidean emakumeon hitza” lelopean burutu ziren III. Topaketa Feministak. Bilboko Euskalduna Jauregian bildu ziren egungo egoeraz eta etorkizunaren eraikuntzan emakumearen parte-hartzearen bermearen konpromisoaz bultzaturik 400 bat emakume. Bertan Bilgune Feminista-k deiturik Euskal Herriko gatazkaren konponbidean eman beharreko pausoak zehaztu zituzten abenduaren 17an burutu eztabaidetan.

[maite lekue]


EMAKUMEAREN PARTE-HARTZEA SUSTATZE BIDEAN

Edukin ugari prestatu zituzten Bilgune Feminista-ko kideek abenduaren 17ko topaketa hauetarako. Besteak beste, Euskal Herriaz haratago bizi izan diren esperientzien eta berauetan emakumeek izan duten paperaren azalpena eman zuen bertara gerturatutako emakume irlandarrak. Ondoren, gonbidatuak izan ziren Euskal Herriko eragile politikoek, emakumearen presentzia eta parte-hartzea gatazkaren konponbidean nola bermatu adierazi zuten mahainguru batean. Eragile politikoek emakumeak sarbidea izan dezan egin duten lana ezagutatze aldera egindako mahainguru honek kolore desberdinetako iritziak bildu zituen, nahiz eta komuneko ildoak ere azalarazi ziren, besteak beste “Nazio gatazka konpontzeko egiten diren aldarrikapenetan parekidetasuna gaineratu behar dela. Espero dugu hori lortzeko tresnak topaketa honen fruitu izatea”, izan zen antolatzaileek baikortasunez helarazitako mezua.

Topaketetan emakumeak eremu publikoan duen espazioaz mintzatu ziren eta honen aurrean emakume euskaldunei arreta deitu nahi izan zieten eremu publikoan present egon beharra aldarrikatuz. “Parte-hartzerako mugak esparru guztietan identifikatu baditzaiegun ere, jatorria faktore oso garrantzitsu batean oinarritzen



[arg.: bilgune feminista]



Herria isilarazi nahi izan zuten,
Hitza kendu,
Mintzaira eragotzi,
Eta iraultza sortu zen.
Emakumea isilarazi nahi izan zuten,
Mutu bihurtu,
Enoratu, baztertu,
Eta orduan
HITZA jaio zen,
Emakume hitza,
Iraultza,
Bizi-iturri

Laura Mintegi

da: eremu pribatuan historikoki atxikitzen zaizkigun ardurek eremu publikoan, erabakitze guneetan edota eztabaida foroetan gure presentzia mugatu dute, egoera hau naturalizat jo izan delarik".

Honen aurrean, Euskal Herrian historikoki egon den gatazkaren konponbidean, gizartea alde batetik eta emakumea berau bestalde, bere esku-hartzearen garrantziaz ohartzean dago gakoa. Honekin batera, parte-hartze hori aurrera eramateko eman beharreko pauso eta neurrien eztabaida ere gauzatu zen. Horrela ba, Bilbon burututako topaketa feministen emaitzetako bat 'Bermeen Komisia'ren eraketa izandu zen, non emakumea Euskal Herriko gatazkaren konponbidean esku-hartzeko beharrezkoak diren neurriak praktikara eraman eta betetzen direla bermatzeaz arduratuko den.

EMAKUMEA SUKJETU POLITIKOA

Eztabaida eta proposamenen luza-penaren ostean, topaketen ondorioak eskaini zitzaizkien bertara hurbildutako

guztiei. Haien artean hauek dira nabarmenenak:

-Lengoaia ez sexistaren erabilpena exijitu zen prozesuaren parekidetasuna sustatzeko neurri bezala.

-Alderdi guztiek ordezkaritza bikoitza (emakumea eta gizona) izatea aldarrikatu zen, edozein mahai zein forotan.

-Bozeramaileen parekidetasuna bermatu emakumearen parte-hartze erreala eman dadin. Honetarako neurriak hartu eta betearazi. Mezu zuzenak eraiki beharra ikusi zen, baita emakumeak betetzen dituen guneetara heldu ahal izateko ere.

III. Topaketa Feminista hauen parte-hartzaileek Euskal Herriko mugimendu feminista artikulatzearen beharra gaineratu zuten aldi berean, "emakumeak sukjetu politiko aktiboa izan behar du irekiko den giza prozesuan", eta horretarako beharrezkoa izango da emakumeen artean kontzientziazioa garatzea eta zubiak sortzea.

Bilgune Feminista

Euskal Herriko Bilgune Feminista 2002an jaio zen, Leitzan 2001ean egindako topaketen ondorioz. Bertan, euskal emakumearen egoeraren diagnostikoa egiteaz gain, emakumeen bizibaldintzak hobetu, berauek kontzientziatu eta esparru guztietako eragileak genero perspektiba txertatzera bultzatuko zituen erakunde berri baten beharra marraztu zen, ondoren Bilgune Feminista-ren helburu nagusiak izango zirenak.

Euskal Herriko Bilgune Feminista-ren jatorria gure herrian egon den eta gaur egun dagoen tradizio feministaren ondorioa da. 70. hamarkadatik gaur arte, esparru desberdinetan eta ahalegin handiz, praktika eta teoria feminista bultzatu dituzten emakume eta talde feministen ondorioa da. Gauzak aldatzeko, ezkutuak izan diren gure emakumeen, gure herriaren historia, hizkuntza eta errealitatea helarazteko kemena izan duten emakumeen leinukoak dira. Eta pila-pilean, urgentziaz beterik dagoen Euskal Herriko orainak bultzatu ditu etorkizunari itxaropenez begiratzen dion bilgune feminista hau sortzera.

Varanasiko istorioak (amaiera)

7.- ZORIONA

[jon arretxe]



Eguzkia Ozeano Barearen gainetik ari zen pasatzen, zoriontsu. Halako baten, ordea, uretara begiratu zuen, bere irudiaren islaz gozatzeko, eta zer ikusi zuen? Bada, ekaitza zegoenez, olatuek itzuli zioten irudi zatitua, itsusia. Guztiz zoritxarreko sentitu zen horren ondorioz eguzkia.

-Aizu -esan zion ilargiak, triste ikusirik-, ez egin negarrik, begiratu niri.

Eguzkiak obeditu eta orduan oso distiratsu, egonkor, eder ikusi zuen bere burua ilargiarengana islatuta. Negar egiteari utzi eta zoriontsu sentitu zen berriro.

Baina ostera ere begiratu zuen itsasorantz eguzkiak, eta zoritxarreko sentitu zen. Berriz ere ilargirantz, eta zoriontsu... Eta horrela denbora luzean.

-Zeri egin behar diogu jaramon? -galdetu dit Ganga maisuak kontakizunaren amaieran-. Ilargiaren esanari, noski. Eta zein da beronen mezua? "Begiratu niri, neuk erakutsiko baitizut barruan dituzun bakea eta edertasuna. Eta horrek zoriontsu egingo zaitu".

Gangak dio biziaren historia dela hau, ikasi behar dugula geure emozioak kontrolatzen, eta ez diegula arretarik eskaini behar gauza materialei, kontu izpiritualei baizik. Bestela, gogo oso aldakorra denez, itsasoa bezala, gorabehera emozionalak ekarriko dizkigu eten barik, eta horrek eragotzi egingo digu egiazko bakea eta zoriona lortzea.

-Beste istorio bat kontatuko dizut -jarraitu du Gangak-, hobeto uler dezazun zein den bidea egunerokotasunaren gorabeherak eragotzi eta benetako kontrol mentala lortzeko:

-Jogi batek denbora luzea zeraman ahaleginak egiten bizitza materialeko gorabeherak baztertu eta egiazko kontzentrazioa lortzeko, baina ez zen gauza. Bere guruak, orduan, guztiz isolatutako tokiren baten saiatzeko aholkatu zion. Gizonak soro bakar-tiz inguratutako arbola bat aukeratu zuen, haren ondoan jesarri, begiak itxi eta, hari eta gogoaren kontrol oso-oso zuela sumatu arte, berriro ez irekitzeko erabaki finkoa hartu zuen.

Zenbat denbora eman zuen horrela? Egun bat, bi, hiru... aste bat, bi, hiru... hilabeteak agian... Halako baten "lortu dut" pentsatu zuen jogiak, "erabateko kontrola sentitzen dut nire gogoarekiko. Guruarengana itzuli behar dut honen berri ematera".

Orduan gizonak begiak ireki eta sekulako ustekabea izan zuen. Izan ere, bere inguruan, soro bakartien ordeztan tenplu handia zegoen eraikita, eta ehundaka lagunez inguraturik zegoen, denak ere berari kantuan eta otoizka.



ERREZETA

AHATE GIBEL APARTSUA MADARI KONPOTA & BERE GAILETAK

[gamarrako ostalaritza eskola]

> Osagaiak:

- 150 gr. ahate gibel fresko
- 5 zl. Porto ardo
- 1 dl. esnegaina
- Gatz arrunta
- 2 ale madari heldu
- Ale 1 ondo heldu gabeko madari
- 1 dl. almibar
- 100 gr. azukre beltz
- Cointreau
- Likorea

PRESTAKETA

Ahate gibel apartsua

Su moteletan eta ontzi txiki batean jarri gutxitzen ahate gibela zatituta Portoko ardoarekin, azken hau erabat murriztu arte. Esnegaina gehitu, eta berriro ere txikiagotzen utzi, saltsa arin baten sendotasuna lortu arte. Gatzaz ondu eta thermomixean birrindu ondoren txano batekin bahetu, fin-fina utzi arte. Hozten utzi sifoi batean sartuta, eta ondoren eragin honi, eta gorde.

Madari gailetar

Ondo heldu gabeko madaria, zuritu ondoren, xerra finetan moztu luzeka, eta ondoren almibarretik pasa eta labe erretilu batean jarri. Labea 100°tan egosi, pixka bat gorritu arte, eta leku fresko eta lehorrean gorde.

Madari konpota

Ondo heldutako beste mi madariak zuritu eta zatitu ondoren, ontzi herdoilgaitz batean jarri egosten su moteletan, azukre beltz eta cointreau-arekin. Bigundu eta zukua murrizten denean, goilara batekin zanpatu eta gorde.

PLATERAREN ANTOLAKETA

Koktel kopatxo baten ipurdian, konpota goilarakada bat jarri eta honen gainean ahate gibel apartsua, eta madari gaileta eta tipulin adartxo batekin apaindu.

[cristina fernandez balnco]

cristina fernandez blanco (1971)

>eibarren jaio, gasteizen hazi eta arbizon bizi da

>ikasketak: arte ederretan lizentziatua

>eskarmetua: diseinu grafikoa; irudigintza eta liburu-azalen diseinua; azken aldian, gara-ko 'mugalar' gehigarrian kolaboratzailea; orain, 'geu' aldizkarian



GORKA DEL POZO ARRIETA
(GASTEIZ):

"ARABAKO HERRI IZENAK
ALDATU DIRA HISTORIAN
ZEHAR?"

Pila bat, Gorka, pila bat. Lehenik eta esker mila zure e-mailarengatik. Tira ba, ale honetan zeredozer azalduko dugu eta, bertze batean, gaia gehixeago jorratuko. Adibide batzuk ez bertzerik, eta leku tikiakin hasiko gara. Uda-Trebiñun bada toki polit-polita. Orain "Aguillo" diote, lehen "Agelu" zen. "Aguiniga" ere badugu, baina agiri zaharretan "Aguinaga" zen. "Alborcoin" ere herri bat zen, halere aspaldi "Albergoihen" zuen izena. Gaurkoz amaitzeko, kasu, ea Gorka, zer iruditzen zaizu "Antezana de Alava" duela mila bat urte "Andiggana" izaitea? Muxu handia jaso, eta laster arte.

CODEX CALIXTINUS (I)

[erlantz urtasun]

Kaixo, irakurle. Gaur Aymerid Picaud izeneko gizon petrala, gaiztoaren berri eman nahi dizut. Erdi Aroko pertsonaia dugu, XII. mendekoa, Okzitaniako Parthenay-le-Vieux herrikoa, erran nahi baita egungo frantses-estatuko hegoaldekoka, Añamendi, Pirinioz bertzaldekoka.

Bada, eta hainbat egileren arabera, bidaiaria hau 1134 urtearen inguruan ibili zen euskal lurraldeetan barna. Galizako Santiagoratz joan nahi zuen, hots, on done Jakue bidea egiten ari baitzen, erromesaren gisa alegia. Horrela, eta "periplo" horren ondorioz, garai hartarako benetako Ulisesen Odisea edo irudikatzen zuenaren bidez, Lluís Llach musikariaren 'Viage a Itaca' ezin ederragoa burutu beharrean, gure osperako munduan korroskada ikaragarria den 'Liber Sancti Iacobi', 'Codex Calixtinus' izenez

jantzirik ezagunagoa dena isuri zuen. Lastima.

Eta, ai ene, zer erran zuen Aymerid zenak arabarrei buruz? Honatx ihardespena: "In quibusdam horis eorundem, in Biscaglia scilicet et Alava, dum Navarri se calefaciunt, vir mulieri et mulier viro verenda sua ostendunt". Gurean: "Haien eskualde batzuetan, batez ere Bizkaian eta Araban, nafarrak berotzen diren bitartean, gizon eta emakumeek elkarri erakusten dizkiote genitalak".

Uf, hori eta hagitzez gauza gehiago idatzi zuen Picaud jaunak. Ondoriorik? Batetik sexu kontuetan nahikoa iaioak ginela ezin ukatu. Bertzetik, Bizkaia eta Arabako lagunei "nafar" deitu zien, eta arabarrak Nafarroako eskualde batzuetan bizi zirela aise atzemaiten da testuan. Bon, hurrengoan hari honi lotuko gatzazkio ere bai. Mamitsua delakotz, alajaina!



[? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es]

2005eko udazkeneko fruituak

> Arabako euskal literaturaren lagin bat

Durangoko Azokak, literatura eta musika ekoizpenen loraldiak alegia, dakarren liburu eta diskoen zerrenda luzea izanik, ale honetarako GEU aldizkariak idazle bakar batzuen lanak aukeratu ditu mintzagai. Batzuk arabarrak jaiotzez, beste batzuk abegiz, honakoen fruituak hautatu ditugu: Xabier Etxaniz, Gerardo Markuleta, Patxi Zubizarreta, Patxi Salaberri, Iban Zaldúa eta Xabier Olosa. Gertutasun geografikoa aitzaki-maitzaki (hauek denak Gasteizen bizi baitira), honatx Arabako euskal literaturaren udazkeneko fruituak.

[josune v. de mendizabal]

Xabier Etxaniz, 'Literatur antologiak'

Azken urteotan argitara eman diren euskal haur eta gazte literaturaz osaturiko liburua dakar Xabier Etxanizek. Antologia kaleratu du Etxanizek guztira haurtaturiko 50 idazleren lanekin. Irakurleak 50 idazlerekin egingo du topo bi liburutan: 23, gazte literaturarenean, eta 27, haur literaturarenean. Elkarren eskutik datorren argitalpen honetan egile bakoitzaren liburu baten edo gehiagoren zatiak irakur daitezke, orora 99 liburu-zati direla.

Xabier Etxanizen helburua gaur egungo haur eta gazte literaturaren ikuspegi zabal eskaintzea da eta horretarako azken hogeitaz urteko sail horietan argitaraturiko lanak hautatu ditu.



Patxi Salaberri Muñoa, 'No (Poema akrilikoak)'

'No (Poema akrilikoak)' izenarekin argitaratu du Pamiela etxearen eskutik Patxi Salaberri bere azken lana. Aramaioarraren bigarren poesia liburua da hau. Idatziriko lehen poesia bildumarekin Patxi 'Irun Hiriko Poesia Saria' irabazi zuen 2002an, eta ondorioz 2003an 'Uretan idatzia' izenaz lehen poesia liburua argitara eman zuen.

Bankuek darabilten hitzaren indarrari erreparatuz egin du salto egun Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle denak. Ia berrogei poemaz osaturiko 77 orrialde idatzi ditu Salaberri oraingoan. Autore honek bestelako idatziak ere kaleratu ditu azken zortzi urteotan, hala nola, 'Axularren prosa Erretorikaren argitan' (1997), 'Axular. Antologia' (1998), 'Haizkora zuhaitzaren erroari kheinatzen (Axularren gogoetak eta errnak)' (2000), 'Iraupena eta lekukotasuna. Euskal literatura idatzia 1900 arte' (2002), eta 'Euskal klasikoen atarian' (2004).



Patxi Zubizarreta, 'Urrezko giltza'

Kontu kontari aritzen da Patxi Zubizarreta, Joserra Senperena eta Jokin Mitxelenaekin batera argitaratu azken haurrentzako lan honetan. Hitza bai baina kantak ere aurki daitezke bertan. Izan ere, 'Urrezko giltza' (Grimm anaien ipuinean oinarrituriko izenburua), disko-liburua da. Guztira, 25 ipuin inguru bildu ditu Zubizarretak, Mitxelenaen ilustrazioekin batera. Bi diskotan entzun daitezkeen ipuin eta kantak antolatzeaz arduratu da, bestalde, Senperena.


Grimm anaien ipuin ezagun horretan kontaktzen da ume batek urrezko giltza bat aurkitu zuela eta, ondorioz, giltza horrek irekiko zuen kuxaren bila abiatuko zela. Kutxa topatu eta irekitzeaz dagoenean... ezta ezipaintan uzten digute Grimm anaiek. Patxiaren ustetan, "kutxa tradizioa osatzen duten folklorea, ipuinak, jolasak eta kantak daude...; hori dena galtzen ari den heinean familiak berreskuratzeko ahalegina egin behar du".



Iban Zaldúa, 'Etorkizuna'

Etengabe ibili da 2005ean Iban Zaldúa. Horren frogar, kaleratu berri dituen liburu bi: 'Etorkizuna' eta 'Si Sabino viviria'. 'Etorkizuna' liburuaren ipuinen abiapuntua "historiaren alternatiben inguruko galderak" direla dio idazleak. 'Etorkizuna. Hamabost ipuin ia politiko' da Alberdinak kaleratu duen lan honen izen osoa, politika kontuak zeharka bada ere agertzen baitirelako.

Bestetik, apustu bitxia izateagatik eta salbuespena eginez (euskaraz idatzitako lanez ari gare-lako), Lengua de Trapo argitaletxearekin kaleraturiko 'Si Sabino viviria' lana ekarri nahi izan dugu erreportaitxo honetara. Izenburuko baldintzazko perpausak (apropos gaizki jarrita) aurreratzen dizkigu liburuak dakartzan umore eta zientzia fikziozko ukitu garbiak. Tauro eta Nueva Euskadi izeneko planetak, Cosmic Josemi izeneko ikertzaile galaktikoa... Kontuan hartu beharreko apustu desberdina.



Gerardo Markuleta, 'Ezjakintasunak'

Gerardo Markuleta literatura genero ezberdinak landu ditu bere 20 urteko ibilbide profesionalean. Bere lanetan itzulpenak nagusi badira ere ('Hitz ibiltariak', Eduardo Galeanoren; edota 'Hegoaldeko autopista', Julio Cortazarena, besteak beste), haur eta gazte literatura ('Asier eta egia gurutzatuaren liburua'), narratioak ('Ipuin euskaldunak') eta poesia ('Batak ez du beste kentzen', bat aipatzearren) generoak jorratu ditu Markuleta.

Azken lana ere poema liburua du idazleak, 'Ezjakintasunak', alegia. Urtero Arabako Foru Aldundiak saritzen duen Ernestina de Champourcin lehiaketan irabazle suertatu da Markuleta euskara atalean. Aurtengo sari banaketak are garrantzi handiagoa izan du, kontuan izanik Ernestina de Champourcin poeta gasteiztarren jaiotzatik ehun urte bete direla aurretik.

EZJAKINTASUNAK

Ez dut sekula ondo jakin
ezagun berri bat
agurtzen noiz hasi.

Zehatz ez dut inoiz jakiten
nori agur esan
buru keinu batez,
nori esku biak
beroketik kanpo,
noiz eskua eman,
noiz besarkada bat,
nori egin
-gura barik-
ez ikusi.

Behin ere ez dut asmatzen
noiz masaila eman,
noiz ezker eskua,
noiz ezipain mutturra;
ez noiz behar duten
bi izan musuak,
noiz hiru, edo bat.

Ez dut sekula ondo jakin
noiz hurbildu,
noiz urrundu,
noiz gelditu
ezagun berria
ezagutu guran.
Zehatz ez dut inoiz jakiten
izen berriren bat
agendan noiz sartu,
izen bat noiz pasa
agenda hiletik
agenda berriara,
eta noiz ez. Eta
agendetatik noiz
behin betiko kendu.

XABIER OLASO, 2005 Euskadi Literatur Saria Haur eta Gazte Sailan, 'Pupuan Trapua' (Pamiela)

Xabier Olaso (Otxandio, 1964) aurtengo Euskadi Literatur Sarien irabazleetako bat izan da Pamielaren eskutik hurrei zuzenduriko 'Pupuan Trapua' liburuagatik. Euskal filologian lizentziatua, Olaso egun Gasteizko Armentia ikastolako irakaslea da.

Euskadi Literatur Saria eskuratu duzu 'Pupuan Trapua' umeentzako liburuarekin. Iturbe, Cillero, Uribe eta Zubizarretaren artean irabazle izendatu zintuztenezan zer pentsatu zenuen?

Egia esatera, ez nuen halakorik espero. Finalista nintzela jakinarazteko hots egin zidatenean, horrek berak ere, ezustean harrapatu ninduen. Zorioneko ezustea izan zen, baina. Jakinarazpen hori berori saritzat hartu nuen. Javi Cillero eta Iturberen obrak ez baina Kirmen Uriberen 'Garmendia errege' eta Patxi Zubizarretaren 'Abiki sekretua. Sorginen eskuliburua' liburuak ezagutzen nituen eta lan ederrak iruditu zitzaizkidan. Gerora, azken epaiaren berri emateko deitu zidatenean ezustea are handiagoa izan zen, finalistetako bat izatetik behin-betiko hautatua izatera bide luzea baitago.

Epaimahaiak tradizioaren usaina nabarmendu zuen zure kontakizunetan. Zergatik uste duzu?

Agian ez da komeni orokortzea. 80 poema inguruk osatzen dute liburua eta estilo eta molde ezberdinak azaltzen dira bere luze-zabalean. Bestalde, poema-bilduma bi ataletan dago antolaturik, 'Esna irauteko poemak' izena du lehenengo atalak. 'Lotarako kanta-kontuak' bigarrenak. Izaera ezberdinak dituzte, biek ala biek ere. Lehenengo zatikoak poema biziak dira, dinamikoak, mugimendua eragiten dutenak. Loa eragozten dutenak, nolabait esateko. Epaimahakideek azpimarratu zuten tradizioaren usain hori liburuaren bigarren atalean da nabarmenagoa, nire ustez. Atal horretako poema askotxoq sehaska-kanta klasikoaren eredua ekar diezagukete gogora. Horietan egon daitezke, beraz, tradizioaren zipritinak.

Ipuin laburrak eta soinuak dakartenak direla iruditu zait nire hauek irakurtzean, haurrentzako poesia esan genezake?

Bai, haurrentzako poesia, inondik ere. Ipuinean argumentua da gailentzen dena eta poesian, berriz, irudiak. Poesiaren egiteko bat hitz gutxiarekin al baita eta gehien komunikatzea da eta zehaztasun punttu hori bilatu behar da. Pupuan trapua'n liburuako poemak ildo horri lotzen zaizkio nahiz eta, zenbaitetan, hainbat poemaren gaiak ipuinen irudiak ekartzen dizkiguten gogora.

Hizki ezberdinen arteko jokoak egiten duzu gehienetan, K, TS, TZ... gustuko duzun baliabidea?

Azken batean, hizkuntza da idazteko erabiltzen duguna eta umei erakargarria eta jostagarria gerta dakien bitartekoak baliatu behar dira. Onomatopeiak, hitz-jokoak, haur hizkera, hitz homonimoak eta halakoak sarri aukeratzen ditut haurrentzako poemak ontzeko orduan, horiek guztiek bizitasuna, mugimendua eta originaltasuna ematen dietela uste baitut. Atsegin ditut horiek guztiak. Pupuan Trapua liburuan halako askotxo agertzen dira.

Saria eskuratzean zure umeari, besteak beste, eskaini zenion. Bera al da zure zuzentzailerik onena? Nola asmatu umeek zer duten gustuko?

Bera da zuzentzailerik gertukoena, behintzat. Hartara, bera izan ohi da nire idazkien lehenengo jasotzailea eta atsegin duen ala ez ziztuan esaten dit, di-da, umeek ez baitute batere erreparorik pentsatzen duteria borobil-borobil adierazteko. Bestalde, egun umeekin egiten dut lan eta egunean hainbat ordu haiekin harremanetan egoteak beren gustuak eta disgustuak ezagutzeko aukera bikaina ematen dizu ezinbestean. Beraz, haurrentzat idazten dudanean abantaila txiki hori, behinik behin, badaukat. Idazteko orduan beraiekin bat egitea da erronka, eta, horretarako, beraien interesgune eta bizipenetatik gertu dauden gaitetatik abiatu behar dela uste dut, beren hizkuntzatik lar urrun ez dagoen moldeari eutsi, eta, azken batean, beren neurriari egokitzen



[arg.: edorta sanz]



ahalegindu. Horretan egon daiteke gakoa.

'Hotsateko basoa' argitaratzear duzu, zein irakurle motari zuzendua?, zer kontatzen duzu bertan?

Plazan da dagoeneko, eta Aizkorri argitaletxearen eskutik etorri da, 'Mendi sorgindua' sailean. Hurrei zuzenduriko liburua da eta olerkiz osatua. Olerkiok ardatz baten inguruan harilkatuta daude, 'Hotsateko basoa' bera da poemaren eragile. 'Hotsateko basoa' baso berezi eta bitxi samarra dela esango nuke, bertan animaliak eta hezur-haragizko pertsonak ez ezik izaki mitologikoak ere erruz azaltzen baitira han hemenka. Poema bakoitza postal antzeko bat da, postal txiki bat, basoko gune batera eramango gaituena. Hizkuntzari dagokionez, bestalde, onomatopeiak erabili ditut sarri-sarri, era jostagarrian. Ezin aipatzeke utzi liburua ederki apaintzen duten Belen Lucasen marrazki bizi eta koloretsuak.

bibliografia:

Poema bilduma:

Gauaren magalean (1998)

Datak eta postdatak (1999)

Azalaren memoria eta Itinerarium (2001)

Haur Literaturan

Auskalo! (Igarkizun eta aho-korapiloak) (2001)

Pupuan Trapua (2005)

Hotsateko basoa (2005)

> gasteizko irakurle kluba 2005/06

>>urtarrilaren 26a, osteguna

C. K. Chesterton, Ostegun izan zen gizona,
Ibaizabal 1997 [1908]

dinamizatzailea: iban zaldua
lekua: hikaateneoa (pintore kalea, 13) ordua: 20:00

>>otsailean mintzagai izango den liburua: Eider Rodriguez, Eta handik gutxira gaur, Susa 2004



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

> kultur errota

>>ekitaldi kulturala
(zehazteke)

urtarrilak 31, asteartea

gasteizko parral tabernan, 20.30ean

> kangeuroak

ikasturtearen hasierarekin
batera, zerrenda berritzeari
ekin diogu. kangeuro gisa
aritu nahi baduzu emaguzu
zure izena eta telefonoa, eta
zehaztu zure ordutegia:
945222153 /
geugaste@grn.es

aldi berean, zerrendan
agertu nahi ez baduzu,
abisua eman.

ostiral, larunbat eta
igandeetan

Berrbizne Urzelai
652711705

>iragarkitxoak

>>programa berria

LASTER, MIHILUZE LEHIAKETA
ETB1en KIKE AMONARRIZEKIN!

HORRETARAKO, LEHIAKIDEAK BEHAR DITUGU,
18 URTEK GORAKOAK: UMORETSUAK,
BERRITSUAK ETA DROGOSOAK.

ANIMA ZAITEZ, HIRUKOTE BAT OSATU ETA
JAR ZAITEZ GUREKIN HARREMANETAN
LEHENBAILEHEN:

943 011784

mihiluze@eitb.com

PRIMERAN PASAKO DUZU ETA SARI BIKAINA
LORTZEKO AUKERA APARTA IZANGO DUZU!

Euskararen agenda		2005eko abendua	
12	13	14	15
16	17	18	19
20	21	22	23
24	25	26	27
28	29	30	31

> GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDAREN BERRIPAPERA HILERO JASO NAHI?

BIDALI GEUGASTE@GRN.ES HELBIDERA ZURE
MAILA, "GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDA JASO
NAHI DUT" ADIERAZIZ.

>geu gasteiz mendi-taldeak (geurekin mendira) / 06

>>urtarrilaren 22an

Usakoatxa (913 m)

goizeko ibilaldia

arduraduna: Txipi 945132758

irteera guztiak: Lovaina plazatik /
goizeko 9.00etan



usakoatxa mendia. fitxa>

(www.luberri.net)

>913 m

>mendizerra: elgea

>kokapena: eu50 utm 30t x.536098,
y.4756791

>beste izendapen bat: usokoaitza

>abiapuntuak: landa, marieta, arlaban (g.)

>gertuko tontorrak: elgeamendi · makatz
gain · maroto · mugarriluze · bizkarlatza ·
aitzorrotz · albertia · jarindo · aranguren ·
aumategi / saiturri · elorreta · andarto ·
durakogain · asensiomendi

>he-ko isurialdea: izenak hala esanagatik ez
da haitza ageri usakoatxaren gainean, erpin
geodesikoa, buzoia eta mugarri pare bat
baizik ez da han. gainontzean pinudi,
pagadi, larre eta iratzeak osatzen dute
inguruko paisaia. ibilbidea luzatzekotan,
elgeamendi nahiko gertu gelditzen da, he-
an.



www.geugasteiz.com | geu@geugasteiz.com | geugaste@grn.es

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | e-mail: geugaste@grn.es | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estibx breñas glz. de zarate | aldizkari batzordea: josune veleiz de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estibx breñas eta david alvez | kazetariak: josune veleiz de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue | azaleko argazkia: elkar | argazkiak: edorta sanz, elkar eta galder izagirre | bestelako irudiak-bilaketa: estibx breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estibx breñas glz. de zarate | itzulpenak: edurne begiristain, estibx breñas, aztiri | maketa: dalezve-komunikazioa / patirke sanz laguardia | umorea: inigo sarrasola | kolaboratzaileak ale honetan: jon arretxe, txabi arnal, erlantz urtasun, cristina fernandez, ruben sánchez, cristina puelles, haria eta gamarrako ostalaritza eskola. | publizitatea: aldizkari batzordea eta edurne begiristain | sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, estibx breñas glz. de zarate | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Burdinolak eta Burdingintza (II)

[haria-12. 2005]

Burdirinola bat abian jartzeko, hiru elementu ziren ezinbestekoak: burdin mea, egur-ikatza eta emari handiko ibaia. Hasiera batean basoan eraiki ziren burdinolak, baina gerora, ibai eta erreka ertzetan eraiki ziren.

Uraren erabilera aurrerapauso handia izan zen, giza indarrak gain urarena erabiltzeko aukera eman baitzuen. Ordunik burdinolak ibai ertzetan eraiki ziren, eta gurpil hidraulikoa mugitzeko ibaietako emariaz baliatzen ziren. Gurpil horietako bat burdina urtzen zen sutegiko hauspoa mugiarazteko erabiltzen zen, eta besteak, axala kendu eta masa metalikoari forma ematen zion mailua mugiarazten zuen. Ondoren, beste beroaldi bat ematen zitzaion burdina garbiagoa lortzeko.

Gurpil hidraulikoa "tikinoi" izenez ezagutzen zen, eta mailua edo gabia mugitzen zuenari "tikinoi nagusia" zeritzon.

Sutegia ez zen inoiz itzaltzen, etaugar gorria txinpartak eta fantasia handiko keinuak sortuz goratzen zen, metalurgiaren jainko zen Tartalori eskaintza eginez.

Europako hizkuntzen morfologiaren ikuspegitik, euskal hizkuntzen, germaniarren eta neolatindarren artean bereziki, argi dago zenbait hitzek elkarren arteko paralelismo bat dutela, "Marte eta Martin" hitzek adibidez. Lehena suaren eta burdinaren jainko gisa eta bigarrena, errementari eta forjari gisa. Horregatik, ez da harritzekoa San Martin Euskal Herriko errementarien eta forjarien zaindaria izatea.

Lan honen harira itzuliz, orokorrean Nafarroako eta Gipuzkoako burdinolek gertu zituzten meatokiak, baina interesen arabera eta garraio bideek uzten zutenean minerala Bizkaiko betetatik ekartzen zuten, gozoagoa baitzen. Burdina honi buruz hitz egitean, Yarranton idazle ingelesak Ingalaterrako Dean Basoko burdinoletan egiten zena baino kalitate handiagokoa zela esan zuen.

Hasiera batean burdinolak basoen erdian eraiki ziren, baina basoak azkar soilitzen ziren. Gero, ura indar eragile gisa erabiltzen hasi



zirenéan, ur asko zegoen arantetara jaitzi ziren. Harrezkero mendiko burdinolei "agorrolak" deitu zitzairen, hau da, lehorreko faktoriak, eta arantetakoei "zeharrolak" edo ur olak.

Nafarroan Bakaikun, Goizuetan, Sunbillan, Orbaizetan, Urdazubín, Beran eta Lesakan zeuden, besteak beste. Erriberan Tuterakoa eta Leringoa izan ziren garrantzitsuenak.

1389an Karlos III.a erregea 28 burdinolen jabe zen, eta horiei esker 700 florineko errenta jasotzen zuen urtero. 1532an, 32 burdinola izatera iritsi ziren, eta burdina kintal bakoitzeko zerga bat ezarri zen. Burdinolen jabeek ekoizten zuten kopuruaren zinpeko aitortpena egin behar izaten zuten.

Erregeak errege-ordezkarik bat izendatzen zuen, eta honek Iruñako xapitelean egiten zen burdina salmenta eta prezioa kontrolatzen zituen, eta beste herrialdeetara, Frantziara eta Gaztela eta Aragoira, bereziki, egiten zen esportazioa ikuskatzen eta zaintzen zuen.

Garrantzi handikoak ziren olagizon maisuek eta errege-ordezkariek elkarrekin egiten zituzten bilerak. Bilerek ez zuten eguna zehaztuta izaten, eta ekoizpena eta prezioa ezartzen zen bilera horietan. Horrela, 1385ean kintalak 30 soldataren prezioa zuen. Gaur egun jokabide horiek politika babesletzat hartuko genituzke.

Argi dago burdinolek herrialdeko aberastasuna areagotzen lagundu zutela, nekazaritzan, arrantzan eta abeltzaintzan bizibiderik aurkitu ez zutenei beste bizibide bat emanez.

XVIII. mendean, gerrako beharrei erantzuteko Eugén eta Orbaizetan bi galdategi sortu ziren, baina Frantziako muga oso gertu zegoenez, funtzionamendu kaskarra izan zuten.

1860ean burdinolen gainbehera areagotu egin zen, eta 20 urte geroago Nafarroan bost besterik ez ziren gelditzen. Bakarren batek XX. mendera arte iraun zuen, baina garbi zegoen amaiera iritsi zitzaizela, ezin baitziren lehiatu Europako merkatuan nagusitzen ari zen industria siderurgiko modernoarekin.

[azaroko alean argitaratu zen 1. zatia]



URTE BERRI
ON!!!

TXORIBURU
HALAKOAK
...

Ramon Bajo ikastetxea, etorkizuna euskalduntzen

[arg.: edorta sanz]

Gero eta gehiago dira Gasteiza bizitzera datozen etorkinak, batez ere, Alde Zaharrera. Etorri berri hauen seme-alabek zein bertakoek etxetik gertu ikasteko aukera ona dute hiriko muinoan kokatzen den Ramon Bajo herri ikastetxean. Bertan, ikasle guztien artean eredu euskaldunetan matrikulazioa suspertzeko asmoz, kanpaina berria abian jarriko dute hilabete honetan.



[saioa fdz. de arangiz]

A lde Zaharreko Ramon Bajo herri ikastetxeko Gurasoen Elkarteak, eskolako zuzendaritzarekin batera, eredu euskaldunetan matrikulazioa indartzeko kanpaina martxan jarriko du, Alde Zaharreko bizilagunen elkarrekin, AZAO plataformaren eta hainbat erakunderen laguntzaz. Xedea informazioa ematea da, hots, Alde Zaharreko jendeari eta batik bat ume txikien gurasoei ikastetxe publikoari buruzko informazioa eta baliabideak helarazi, esaterako, irakasleria elebidun ondo prestatua, zuzendaritza inplikaturik, berrikuntza pedagogikorako proiektuak, hurbiltasuna edo ikuspegi integratzailea, besteak beste. Gurasoen elkarrekin hitzetan, "jende askok ez daki bere auzoan bertan D eredua eskaintzen duen eskola dagoela, Haur Hezkuntzatik aurrera, alegia. Informazioa, hortaz, oinarritzat da".

Horretarako, paskinak banatuko dira, eskolara bisitak antolatu eta ekintza

osagarriak egingo dituzte. Horrez gain, D eredua nola hasi diren garatzen ere jakinarazi nahi dute, datorren ikasturtean Haur Hezkuntza osoa jada eredu euskaldunetara izango baita eta hurrengo urteetan gora garatzen jarraituko duelako, eskolako bakarra bihurtu arte.

Eredu bakarra, segregazioa saihesteko bidea

Gaur egun, Ramon Bajo herri ikastetxeko A ereduan (Lehenengo Hezkuntzan) ikasle den-denak etorkinak eta ijitoak dira. D ereduan, aldiz, Haur Hezkuntzan etorkinekin eta ijitoekin batera, autoktono paioak ere badaude. Ildo horretan, eredu bakarra garatzea eskolan segregazio-egoerak saihesteko biderik eraginkorrena dela uste du eskolako kontseiluak, zeinean gurasoek parte-hartze aktiboa duten; "auzoan autoktonoen eta etorkinen seme-alabak elkarrekin bizi dira, eta ez dago arrazoirik elkarrekin eskolara ez joateko, guztiz kontrakoa baizik". Ikasleen gurasoei ere euren seme-alabak auzoko eskolara eramatea aukera naturala iruditzen zaie. "Etxe ondoan

dago eta modu ederra da auzoko beste umeekin harremanetan sartzeko, auzoan lagunak egiteko", dio Gurasoen Elkarteak.

Etorkinen gurasoei dagokienez, matrikulazio kanpaina honek euren artean harrera ona izango duela aurreikusten du Gurasoen Elkarteak. "Etorkinei azaltzen zaienean Euskal Autonomi Erkidegoan bertako gurasoen gehiengoak haien seme-alaben hezkuntzarako D eredua aukeratzen duela, haiek ere eredu euskalduna aukeratzen dute. Informazio kontua da. Azken batean, gure haurren etorkizunean pentsatu beharra dago eta horretan, ez bairik gabe, euskarak gero eta garrantzi handiagoa izango du", azaldu du.

Finean, matrikulazio kanpaina arrakastatsua suertatuko dela espero du elkarteak. "Ezin dugu hesiz beteriko gizarte bat eraiki. Auzoan bertakoak eta etorkinak elkarrekin bizi bagara, ikastetxera ere elkarrekin joan beharko ginateke. Hori dela eta, Alde Zaharreko eskola berrindartu nahi dugu Alde Zaharreko ume guztientzat", gaineratu du.

[cristina puelles]

BEJONDEIZUELA



Normala da, azken finean hizkuntzak narriadura handia pairatzen du, etengabe.

Itzultzaile lagun batek esan zidan “bejondeizula” hitzaren atzetik “biaje on izan dezazula” ezkututzen dela. Gaur egun zoriona opatzeko erabiltzen dugu, agian bi kontzeptuak, bidaia eta zoriona, inoiz elkarren eskutik ibili zirelako, agian garai bateko bizi-egoera gogorretan, bidaia egin eta bidaiatik onik ateratze soila zoriona zelako. Nik ere horixe pentsatzen dut asteburu askotan, errepidea hartu eta gaur Jaen bihar Coruña-ra zoazenean, bejondeizula, onik etorri, bihotza!

Hizkuntzaren patua da hori, ez da garaietara egokitzen, azkarregi aldatzen dira gauzak. Esate baterako, zer da gaur egun delitu egitea?, ahalik eta ateramendurik handiena lortzearren lizentziak baimentzen duen baino etxebizitza gehiago eraikitzea eta pertsonentzat egokiak ez diren bizitokiak egitea, edo etxebizitzok alperrik galtzen uztea prezioak igotzen diren bitartean? Ez, delitu egitea etxebizitza horietan sartu eta etxeak konpontzea da, eta urte eta erdiz etxe horietan bizia ereitea, horixe da delitua, behintzat hori esan zuen epaileak, eta horixe berretsi zuten polizia beltzek.

Zer da gaur egun justizia egitea? Zazpi urtez indarrez itxita izan duten egunkariari ahotza eta duintasuna itzultzea? Ez, kazetariak, eta haiekin batera beste berrogei eta koska herritar, egunero Madrilgo epaiketa batera joan-etorri antzuetan edukitzea da justizia, eta aldi berean auzitegiaren intereseko ez delako, nork bere arrazoiak adierazten galaraztea da justizia.

Zer da gaur egun kartzela-zigorra ka-


suan kasuko zirkunstantzien arabera egokitzea? Hor kontzeptu polisemikoa agertzen zaigu: batzuentzat egokitzapen hori herritarrek osatutako epaimahaiak hartutako erabakia bertan behera uztean datza, eta okin bat hil zezaten senarra eta semea xaxatzeagatik emakume bati ezarritako hamar urteko zigorra atzera bota eta andrea kalean uztea da; beste kasu batzuetan preso Sototik Puerto de Santa Mariara eramatea da, eta presoaren atzetik astebururo bisi-tan joango zaizkion lagun eta senide andanaren biziekin jolastea, hori da kartzela-zigorra kasuan kasuko zirkunstantzietara egokitzea.

Normala da, azken finean hizkuntzak narriadura handia pairatzen du, etengabe. Gaur egun autoinkulpazioa kontzeptuaren elementurik garrantzitsua ez da damua, tortura baizik; bermea ez da segurtasuna ematen dizun zerbait, Iruñeko kaleetan ibiltzeko Olentzerok ordaindu beharreko 1.000 euro baizik; petrolio konpainien iragarkiek garapen iraunkorraz hitz egiten dute; zentral nuklearra ustiatzen duen konpainia elektrikoak energia garbia eskaintzen dit eta emaztea hiltzen duen gizonaren arrazoia pasiozkoa omen da.

Bistan da lengoaiaren aldaketa hauen erritmoa jarraitu ahal izateko aurten ere hiztegigintzak izango duela zeregina. Geu hitzen desegokipen horren lekuko izango gara, baina ez gaituzte engainatuko, ederto bereiziko ditugu hitzak eta hitzen egiazko adierak. Esanak esan, adi ibili, 2006a aldeko urtea izan dezazuela eta errepidea hartu beharrean zaudetenoi, bejondeizuela, antzina-ko zentzuan, jakina.



- Koaderno hauek pentsatzen eta hausnartzen laguntzen dute.
- Buruketen soluzioaren logikan sartzen dute ikaslea.
- Arlo honetan zailtasunak izan ohi dituzten ikasleengana zuzendurik daude.



Sekuentziaturik eta eragiketak europar moneta bakarrarekin, euroarekin alegia, burutzeko egokiturik daude.


Argibideak eta eskariak.

Tel./Faxa:

945 25 75 14



EGUNEAN-EGUNEAN BIZITZEN IKASTEN DUGU ELKARREKIN



Koldo Mitxelenan ikasten den lehen gauza da euskara Euskal Herriko ezaugarriarik behinena dela. Horregatik, mundu zabalean hainbat kultura galtzeko arriskuan dauden garaiotan buru-belarri jarduten gara gure hizkuntza berreskuratzeko asmoz. Euskaltasunetik begiratzen diogu munduari

KM
KOLDO MITXELENA
I N S T I T U T U A

DBH / ESO

Behenafarroa z/g Tlf. 945 26 22 33

www.koldomitxelena.net

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa